

# Bapatean
# 2022

**BAPATEAN 2022**

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarteetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Bertsoen hautaketa eta transkribaketa: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua.

Argazkien hautaketa: Olatz Amundarain.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua; Bertsolaritzaren Doinutegian oinarrituta eta Doinutegi Batzordearen babesarekin.

Zuzenketak eta azken orrazketa: Martin Aramendi.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako *Ondarea* dirulaguntza jaso du.

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiko *Oreka* dirulaguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

Argitaratzaileak:

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Villabona

ISBN: 978-84-892835-9-6

Lege Gordailua: D-0130-2023

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea....................................................................4

Argibideak eta irizpideak.............................................. 6

Bat-bateko bertso hautatuak .......................................... 9

Bat-bateko sariketak ..................................................... 99

Bertso saioen mugimendua...................................... 119

Tauletako kontzeptuen azalpena ............................... 123

Aldizkako ekitaldiak: txapelketa eta sariketak ........... 127

Saioen aurkibidea ..................................................... 131

Bertsolarien aurkibidea............................................. 137

Izen eta izengoitien deskribapena ............................ 141

# Hitzaurrea



## LEHEN MODUAN?

Begi kliska batean pasa zaizkigu bi urte. 2020ko martxoan itxi genituen begiak, eta dena orduan azkenekoz ikusi genuen bezala ikusi orduko, bi urte pasa dira.

Ez dut ondo gogoan zein izan zen pandemiak eragindako lehen itxialdia heldu aurretik ikusi nuen azken bertso saioa. Ziurrenik, Getxon urtero jokatzen den bertsolari gazteen Abra Sariketa izango zen. Algortako kasinoan, afaloste goxoan, lagun giro ederrean joan zen saioa. Esan moduan, ez nuen bereziki gogoratzen, aurretik gozatutako beste saio askoren antzekoa izan baitzen. Baina gerora egun hartako argazkiak ikusi izan ditut.

Esku artean duzun liburuak betetzeko asmo duenaren antzeko helburua izaten du urte amaieran gurean antolatzen den jaialdiak. Uribe Kostan, modu batean edo bestean, bertsogintzan gabiltzanon bilgunea izan ohi da ALBE Gala. Bertso-urteak eman duena ospatzeko eta datorrena aurrekoa bezain oparoa izan dadin opatzeko eta indarrak hartzeko elkartzen gara. Ohitura izaten da, urtean zehar jasotako irudiekin osatutako bideo batekin hastea, eta 2020ko bideo hark hotzikara eragin zidan.

2020ko otsaileko Abra Sariketa hartako argazkietan, deigarriena egin zitzaidana zera izan zen, bertsolariak elkarrengandik zeinen hurbil zeuden jesarrita. Leku bereziki estua ez izanda ere, elkarren ondo-ondoan. Bertsolari gazte-gazteak, elkarren epelaren bila bezala. Abenduan, Gala aurrera eramateko bete behar izan genituen neurriekin zer ikusirik ez.

Bideoko hurrengo bertso saioa 2020ko maiatzekoa zen: Udaberriko bertso afaria. Jendeak etxetik jarraitu zezan streaming bidez zuzenean emititu zena. Aurkezle, gai-jartzaile, bertsolari eta bertsozaleak, nor bere etxean. Epeletan bai, baina elkarren epelik gabe.

Horrela joan ziren bi urte. Garaian garaiko eta lekuan lekuko neurri bereziek baldintzatu zituzten bertso saioak. Aforo mugatuak, higiene neurriak, musukoa, pasaporte serologikoa... Eta batez ere, niri neuri lerrootara ekartzeak lehen aldiz entzun nuenean besteko hotzikara eragin didan kontzeptu bat: distantzia soziala.



Bada, guzti hori bere onera itzuli da 2022an. Bilduma honetan jaso diren bertsoak, pandemiaren osteko "normaltasuna" itzuli den urtekoak dira eta, zalantzarik ez izan, bertso horietan isla izango duela urteak izandako bilakaerak.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar urtearen hasieran aurretik aipatutako neurri horietako asko indarrean zeudela oraindik, eta orduko bertso saioak ez zirela izan, urtearen amaieran ezagutu genituenak, eta errazago gogoratzen ditugunak, bezalakoak. Orain harriduraz gogoratzen ditugu pandemia beteko saio horietako irudiak, 2020ko abenduan otsailekoak ikusten genituen besteko harriduraz. Zorionez, bi urteko begi kliska hori pasa da.

Musukoak desagertu dira bertsoaren paisaiatik, baita distantzia soziala ere. Eta horrek, ematen ez badu ere, sekulako eragina du. Izan ere, oholtza gainean daudenentzako publikoaren erreakzioa jasotzea ezinbestekoa da. Bertsoak eragin behar duena eragin duen ala ez jakiteko, mezua iritsi den ala ez, barrea eragin duen, tristura eragin duen, bertsozaleen arteko zurrumurruak, keinuak... Bertso baten osteko erreakzio multzo horrek ezinbestean baldintzatuko du osteko bertsoa, eta baldintzatuko ditu bertsolarien jarrera, jarduna, eta finean, saio osoaren joana.

Gai-jartzaileongan ere eragiten du, noski. Oholtza gainean egotea egokitu zaidanetan, hori guztiori itzuli dela igarri dut; eta bertso saio baten ekosistema osatzen duten agente guzti-guztiek bertso saioekin gehiago gozatu dutela ere bai. Lehen moduan.

Oholtzapean egon naizenetan ere gozatu dut, lehen moduan. Baina behetik gorako ikuspegi honetan, dena ez dago begi kliska egin aurretik zegoen moduan. Bertsolariak elkarren ondo-ondoan daude berriro ere, elkarren epelean, bai. Baina irudipena dut, aldaketa bat eman dela denbora honetan zehar.

Elurte baten ostean, bat-batean, elurra desagertu dela konturatzen gara. Elurra nola desagertzen ari zen ez gara ia jabetzen, eta ohartzerako ez dago elurrik. Bada, niri behintzat antzeko zerbait gertatu zait. 2022an, oholtza gainean, aurpegi berriak, kantakera berriak, diskurtso berriak, molde berriak... ikusi ditut.

Ez akaso berriak, lehenago ere bazeudenak, baina orain modu ageriagoan.

Abra Sariketa hartako txapelduna, plazaz plaza dabil, adibidez.

**Beñat Vidal Gurrutxaga**



# Argibide eta irizpideak

## ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean*.

2.- *Bapatean 2022*an, 57 bertso saioetatik hartuta, 85 bertsoalditako 599 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin.

3.- *Bapatean* antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2022an 297 saio grabatu dira entzuteko euskarrian; 446 oren orotara.

5.- 2022. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (2) (Bertsozale Elkartea, 2022) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako *Bertso Doinutegiaren* (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkarteak onartutako *Bertso estrofak izendatzeko irizpideak* (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan (XDZ) jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- Bapatean egitasmoak Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordetzaren *Ondarea* dirulaguntza jaso du. Horrezaz gainera, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren jarduera babesten dute: Eusko Jaurlaritzak (Kultura sailburuordetzak; Ondarea), Nafarroako Gobernuak (Euskarabidea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hizkuntza Berdintasuna).

9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.



10.- Bertso lerroak idazteko bi tradizio ditugu bizirik: batetik, puntu osoa lerro bakarrean idaztekoa (Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarren) eta bestetik, hemistikioka idaztekoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian). Bi tradizioek bizirik segi dezaten, bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideei jarraiki, holaxe jokatu dugu:

- Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea.
- Arestian aipatu kasuetan, araberako neurrien izendapena baliatzea (adibidez: zortziko txikia beharrean, lau puntuko txikia).

Aurrerantzean ere, eta guztioi esker, ahozko ondare hau biltzen, antolatzen eta hedatzen ariko gara hau bezalako argitalpenen bidez.

**Bertsozale Elkartea**

(1) https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa

(2) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/12278-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak

(3) http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa

(4) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak





# Bat-bateko bertso hautatuak



*Lurra esnatuz, bertso eskolak plazara!* Agate bezperan. Aramaio. 2022-02-05. XDZ

# AMURRIO

2022-01-04

**Bertsolariak**

Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Jon Maia

**Gai-emailea**

Naroa Sasieta

Beste urte batez, Txapelketa Nagusiko finalistekin egiten den saioa antolatu da Amurrio Antzokian. Hau 17.a izan da. Unai Agirreren ordez, Jon Maiak kantatu du.

**I. Elortza – A. Mendiluze**

Gaia: Bikotekide eta guraso zarete. Nahi zenuten guztia ez zenuten izan umetan. Orain guraso moduan Aitorrek dena eman nahi die bere umeei, ez die ezezkorik entzunarazi nahi berak entzun behar izan zuen bezala. Igor ez dago horrekin ados.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*



**A. Mendiluze**
Umeei ezin zaie
atakarik itxi
nik nahi det eurengatik
urruti iritsi
nahi duten hura gabe
ezin ditut utzi
baiezko asko nahi det
ta ezezko gutxi
ta nola erabili
ondo erakutsi.

**I. Elortza**
Nahiz ta ezetzak sortu
sarri etsipena
bizitza ikasteko
horixe da dema.
Olentzerotan ere
nola eman dena?
Ezetza izan leike
jostailu onena
haurrak garatu dezan
bere irudimena.

**A. Mendiluze**
Baina haurrak bihurtu
ditugu artalde
denek jolas berbera
nahi luketen talde
beraz egiten badu
edozerren galde
ni nago nahi duena
uztearen alde
baina erakutsiaz
ez dela debalde.

**I. Elortza**
Nahiz ta biok ekarri
gaur berbak ahora
ta bakoitzak eraman
norbere gogora
zeu geratuko zinen
horrekin gustora
baina ez dira berdin
atera kanpora
debalde emanez gero
debalde izango da.

**A. Mendiluze**
Baina emanez gero
ezetz borobila
konparatzen ez al da
hasiko mutila?
Zuk badaukazu laurehun
euroko mobila
logelan telebista
eta portatila
ta bera irudimenaz
moldatu dadila.

**I. Elortza**
Orain bota duzunaz
nahiko ados nago
baina ez ginen hala
gu hazi lehenago
hogeita batgarrena
bai aro arraro
geu eta haurrak goaz
gero ta txarrago
guk gehiegi daukagu
ta haiek gehiago.

**A. Mendiluze**
Hala're zerbait gehio
beti helburuan
azken asmakizun bat
haien akorduan
eskatzen dutenean
dena amorruan
maitasuna, denbora
ta euren onduan
hori dena sartzen da
denaren barruan.

**I. Elortza**
Baina eman ezean
haiei zenbait dohai
nola izango dira
bizitzarako gai?
Nik ezetz esango dut
zuk esan'zazu bai
ta jarraitu izaten
zu Aitor aita *guai*
nik aita ona baino
ez nuke izan nahi.

**A. Mendiluze**
Hobe biok itxura
hartu bagenio
haurrari aita *guaiak*
sobratzen zaizkio
eskatzen dizunean
serio-serio
esan ezetz ta zure
balore, balio
ta gero geureari
eskatuko dio.

**I. Elortza**
Horrela konpontzerik
daukagunez nekez
bata oker badabil
bestea nola artez?
Beraz bien artean
hor konpondu leikez
ez dakit hala ere
joango den ala ez
zuk esan'zazu "bai" ta
nik esango dut "ez".



**B. Gaztelumendi – A. Arzallus**

ELKARRI PUNTUA EMANDA

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**A. Arzallus**
Zure laranja erdia
ote da bertsoa?
**B. Gaztelumendi**
Ez, ez zabalagoa
da unibertsoa
bihotza izaten da
kontzeptu lausoa
hobe zabal aldera
emanda pausoa.

**A. Arzallus**
Ta hemen ze bertsozale?
Esazu egia.
**B. Gaztelumendi**
Amurrio neretzat
gauza gehiegia!
Urtero giro ona
dela alegia
izatekotan hau det
naranja erdia.

**A. Arzallus**
Bertsolari ez bazina
ze nahiko zenuke?
**B. Gaztelumendi**
Agian lehendakari
zortziren bat urte
eta egingo gabeko
lan guztien truke
jubilazio latza
edukiko nuke.

**A. Arzallus**
Zortzi urtetan konpondu
al leike herria?
**B. Gaztelumendi**
Hortarako mugitu
behar da gerria
arazo pranko dago
lehendik igerria
hobe degu hutsetik
sortzea berria.

**A. Arzallus**
Bota azken bertsoa
eskuak aurrean.
**B. Gaztelumendi**
Horretarako nago
hasi beharrean
Amets jarriko nauzu
ia negarrean
zu jarri zaite nere
postura txarrean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nigarrez sortu nintzen I*

**B. Gaztelumendi**
Pandemiaz aparte
zer moduz bizitza?
**A. Arzallus**
Ba horixe da aspaldi
nagusi den hitza
nahiz bizitzak atea
duen hain anitza
birus hortaz aparte
galdua dut giltza.

**B. Gaztelumendi**
Hurbiltzen ari zera
berrogei urtera
**A. Arzallus**
ta zu ere bazatoz
nerekin batera
lau urteren aldea
gutxi gorabehera
nik gora eiten badut
zuk ezin ein behera.

**B. Gaztelumendi**
Ze gauza ederra zen
gazte izatea!
**A. Arzallus**
Are ederragoa
hori esatea
seinale da luzatzen
doala katea
zahar ta osasuntsu
ze libertatea!

**B. Gaztelumendi**
Nola ibili zera
aurten Gabonetan?
**A. Arzallus**
Ba famili giroan
betiko brometan
beldur gutxi zegoen
nere inguru bueltan
ta dena egin dugu
modu arruntetan.

**B. Gaztelumendi**
Ta sukaldean ondo
moldatzen al zara?
**A. Arzallus**
Arrai zopa egin nuen
gure aman gisara
ta jendeak luzatu
zun hara goilara
ta esan zidaten "Amets
lasai, salbu gara".

**B. Gaztelumendi**
Ta ze amets daukazu
urte berrirako?
**A. Arzallus**
Amets batzuk baditut
baina betirako
nik ez baitut amesten
epe motzerako
bi pausuko ametsik
ez da aterako.






*Plazara* bertsolari gazteen saioa. Anoeta. 2022-02-11. Pello Aranburu. XDZ

## A. Sarriegi – S. Colina

Gaia: Urrutitik Euskal Herrira iritsi berriak zarete, zuena atzean utzita. Sustrai bere herrira begira dago beti. Bueltatzeko asmoa eta gogoa du. Aitorrek hemen ikusten du bere etorkizuna, zergatik ez?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Errota zahar maitea*

**S. Colina**
Beti da susmagarri
azal beltz zimela
ta uste nuen horrekin
jabetu zinela
ni tratatzen bainaute
*Iñaki* bezela
ta nik ere argi dut
hangoa naizela.

**A. Sarriegi**
Ni ere tratatzen naute
*Iñaki* gisara
baina luzeagoa
daukat begirada
noizbait senti nezake
nik etxe erara
ez da hemen dudana
han ez dudana da.

**S. Colina**
Ta hangoa ez al da
zure neurrikoa?
Hemen ere bazabiltz
estu gerrikoa
ni nere lurrekoa
naiz nere herrikoa
ta nahi dut bidaia bat
joan-etorrikoa.

**A. Sarriegi**
Baina han ez janik, ez
etxerik, ez pentsu
ta honantz etorri ginen
gu itxaropentsu
hangoa defenditzen
badezu hainbeste su
ez dut ulertzen zertan
etorri zinen zu.

**S. Colina**
Etorri nintzen besteen
ametsak entzunik
lau sos irabaztera
lanean jardunik
zuk han ez duzula deus
aditu dizut nik
ez'zazu pentsa hemen
zerbait daukazunik.

**A. Sarriegi**
Badaukat bizitzeko
ta jateko beste
beraz aldi batean
zaude eta triste
kondena bat betetzen
limosnaren eske
igual bizitzen ere
saiatu zaitezke.

**S. Colina**
Hortan saiatu nintzen
ta ulertu zenezan
zeu ere saiatzeko
ez ez dizut esan
susmo bat dudalako
aspaldi sospetxan
ez ote garen bizi
ez hemen ta ez han.

**A. Sarriegi**
Itsasoz heldu eta
joan nahi duzu hegan
nik goizero ikusten dut
zer lor dezakedan
nahiz ta aukera gutxi
dauzkagun aukeran
ilusio bat behintzat
piztu da neregan.

**S. Colina**
Ilusioa gogoan
txoriak buruan
itsu saiatu zaite
zeure helburuan
nik bueltan joan nahi nuke
pausu seguruan
baina paper gehiegi
behar da munduan.

**A. Sarriegi**
Nahiz eta kontraesan
asko gure zitan
egon, nik gauza txarra
ez dut besterik han
bete zure ametsa
behin bezala bitan
ta ni hemen banago
etorri bisitan.

# OÑATI

2022-01-05

**Bertsolariak**
Alaia Martin, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Urko Arregi
**Gai-emailea**
Aritz Iza

Txinparta Bertso Eskoliak antolatuta, urteroko Errege egun bezperako saioa izan da Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan.

**A. Egaña**

Gaia: Berria egunkarian egunero idazten duzu eta horrek lana eskatzen du. Bi mikrotatik kantatu beharko duzu. Mikro batetik alfer, nagi, dagoen Andoni. Eta bestetik produktibitatean, emankor, dagoen Andoni.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

**A. Egaña**
Hau jesukriston aldapa dugu
bizitza hau da Golgota
inspirazio dalako hori
ez baitzait sartzen kolkota
zer naiz ni tipo inozentea?
Alperrikako idiota?
Beti berdina idazten baitet
eta bertso bera bota.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

**A. Egaña**
Inspirazio aldetik aizak
juxtu habil, habil herren
hire burua engainatzeko
ahaleginak egin arren
bai bertsotan ta berdin idatziz
ja zer pintatzen dek hemen?
Erretiratzen asmatu ezak
bestek agindu baino lehen.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

**A. Egaña**
Eure buruai jarri 'ezaiok
hil aurretiko eskela
segi ta segi eginan damu
izan hinteke bestela
lan danak utzi itzak kolpetik
ta ez berriz hasi bela
atzendu hadi, ez haiz ohartzen
pena ematen dekela?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

**A. Egaña**
Berrian hasi nintzen garaian
hau ez nezakeen kalkula
nere buruai nota jarrita
jartzen diot matrikula
ez bertsorik ta ez zutaberik
ez zak ez utzi sekula
jende mordoak dio kalean
pozik irakurtzen dula.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

**A. Egaña**
Berriarako idatzi asmoz
goizero esnatzen naiz goiz
nere burua sumatzen baitet
oso indartsu ta sasoiz
jendea ere jotama dago
hain produkzio erraldoiz
arnasa dedan artean honi
ez diot utziko inoiz.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

**A. Egaña**
Lumaren puntan energia dut
alaitasuna bisaian
edonundikan irteten dakit
berdin dio nungo gaian
berdin oholtzatan ta berdin-berdin
etxeko idazte-mahaian
jendeak pena hartu behar dik
hi falta haizen garaian!

**A. Martin – A. Egaña – A. Arzallus**

Gaia: Oñatin COVID intzidentzia tasa oso goran dago. Alaia botikaria zara eta orain zure lana asko hazi da. Hemen dituzu bi bezero, galdera eta enkargu pila batekin. Puntutan lauko txikian Andonik eta Ametsek galdetu, eta Alaiak erantzun.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: *Ikusi nuanean I*

**A. Arzallus**
Ehungarren aldiz egin
al daiteke testa?
**A. Martin**
Ehun ta batgarrena
hau izango da ezta?

**A. Egaña**
Hau al da farmazia
ez daukat goguan?
**A. Martin**
Bai, beti bezelaxe
okinen onduan.

**A. Arzallus**
Zazpigarren txertoan
bila hemen nator.
**A. Martin**
Ba nik salduko dizut
berriro emankor.

**A. Egaña**
Nik hau egin behar det
lehenbiziko testa.
**A. Martin**
Ba kosta egingo du
zuretzat lan extra.

**A. Arzallus**
Jada atera al dute
txerto espainola?
**A. Martin**
Ez baina irtengo da
igual hola-hola.

**A. Egaña**
Nik testa egin nahi det
antigenoena.
**A. Martin**
Hori da egin litekeen
probarik onena.

**A. Arzallus**
Espainolakin igual
birusa izutu.
**A. Martin**
Beraz egin ezazu
eta ez damutu.

**A. Egaña**
Nik non sartu behar dut
makilaren punta?
**A. Martin**
Erantzun asko dauzkat
hola galdetuta.

**A. Arzallus**
Bukatu ote zan ba
hidrogelan hori?
**A. Martin**
Oraindik saltzen dugu
hori oso ongi.

**A. Egaña**
Belarriko zuloan
balio ote du?
**A. Martin**
Nik bastonziloa dut
horretan eredu.

**A. Arzallus**
Horrenbeste garbitzez
eskuak gastatu.
**A. Martin**
Baino segitu ezazu
ez zaitez nazkatu.

**A. Egaña**
Nik'e bastonziloa
beharko det laster.
**A. Martin**
Ez zazu zulo oro
horren sakon azter.

**A. Arzallus**
Negatibo eman det
hau ondo ez dabil.
**A. Martin**
Baina hobe saiatu
ta ez saiatuz hil.

**A. Egaña**
Hemendik sartu behar da
ta nundik atera?
**A. Martin**
Ba belarri ertzetik
zerakin batera.

**A. Arzallus**
Negatibo eman det
ni ez naiz txantxikua.
**A. Martin**
Baina segitu'zazu
gure predikua.

**A. Egaña**
Ni oraintxe jarri naiz
emaitzei begira.
**A. Martin**
Hamabost minutuan
aterako dira.

**A. Arzallus**
Positibo emango du
baina test guztitan.
**A. Martin**
Ta gero karnet gabe
baina eguzkitan.

**A. Egaña**
Ni bi negatibo naiz
begira bi raia.
**A. Martin**
Honi esplikatzeko
garaia bada ja.

**A. Arzallus**
Hau konfinatu'zazu
baina Arantzazun.
**A. Martin**
Ez dakit horretako
nibelik daukazun.

**A. Egaña**
Hantxe ibili nintzen
gazte nintzanian.
**A. Martin**
Oraindik ere zabiltz
sasoian lanian.

**A. Arzallus**
Sartu Urbiko fondan
ta atea itxi.
**A. Martin**
Eta salda hartuta
barruak eraitsi.

**A. Egaña**
Bueno nik ordua det
txikiteorako.
**A. Martin**
Birusa hilko duzu
denbora askorako.

**A. Arzallus**
Ni ere joango naiz
honen atzetikan.
**A. Martin**
Eta ez duzu hartuko
hola birusikan.

**A. Egaña**
Mila esker izan zara
oso atsegina.
**A. Martin**
Beti egin nahi nuke
ongi ahalegina.

**A. Arzallus**
Bagoaz txantxikua
eta zapo zaharra.
**A. Martin**
Etorri berriz baldin
badago beharra.

**A. Egaña**
Guk alde egin degu ta
a ze deskantsua!
**A. Martin**
Baina emaitza izan da
agian faltsua.

# HENDAIA

2022-01-15

**Bertsolariak**
Julio Soto, Amets Arzallus, Maddi Ane Txoperena, Maddalen Arzallus eta Unai Iturriaga
**Gai-emailea**
Aimar Karrika

Ipar Euskal Herriko Harrera Elkarteak antolatu du saioa Baleak Elkartearen laguntzarekin. Sarreran bazkide egiteko agiriak banatu dituzte. Saio aurretik bazkaria zen egitekoa, baina pandemiako neurrien karietara bertan behera geratu da. COVID pasea eskatu da sarreran.

**M. A. Txoperena**

Gaia: June Fernandez kazetariak *Argia*n kaleratutako erreportaje batean, emakume ijitoek erosketak egiterakoan pairatu behar zituzten erasoak salatzen zituen. Tartean testigantza hau: "Hasieratik izan zuten langile bat atzetik, emakume ijitoa nora, langilea hara. Une batean langile batek beste batzuei esan zien buelta bat eman zezatela ea zerbait falta zen ikusteko". Maddi Ane, harritu zaitu entzun berri duzunak? Arrazistak al gara?
(Oinak gai-jartzaileak eman zizkion puntu erdietan kantuan ari zela).

Neurria: Zortzi puntuko berdina, 16 silabaz
Doinua: *Xilabara jina nauzu*



**M. A. Txoperena**

Urduri jarri ohi dira ai **supermerkatuetan**
zerbait lapurtu dutela uste dugu **karroetan**.
Langile denak atzetik isilka, hanka **puntetan**
horrelako zenbat bizi izan dituzten **umetan**!
Nik ere erru ttiki bat izanen dut **eskuetan**
haiengana zuzenduko nitun begi **estuetan**.
Tripa korapilatzen zait horrelako **uneetan**
ze ni ere arrazista izaten naiz **batzuetan**. (bis)

Ta ez du erraza behar hori dena **jasatea**.
Ni zuria jaio nintzen, al da **kasualitatea**?
Jaiotzak ekar dezake ondoren epai **katea**
ta ez du erreza behar motxila **eramatea**.
Titularretan hain ozen aipatzen dugu **bakea**
baina posible ote da aldatzea **gizartea?**
Oraindik ez dut atzeman horretarako **atea**
ez da ta horren errexa koherente **izatea**. (bis)

Ta hori gertatu ohi da hementxe bertan, **Europan**
ez soilik urtean bitan baizik ta beti, **askotan**
ta denok korapilatzen gara razismoen **sokan**
nahiz ta nahiago genukeen hau egotea **kolokan**
begira denak zuriak nola garen oholtza **hontan**
nahiz gatozen lekzioak zueri eman **asmotan**
ta nahiz eta inplikatu eguneroko **borrokan**
agian militanteak gara gu **izatekotan**. (bis)

## J. Soto – U. Iturriaga

Gaia: Abenduaren 25a, Eguberria ospatzeko asmotan bazkaritan hamar lagun elkartu zarete. Lagun edo, esateko modu bat da: familia. Kontxiren etxean elkartu zarete. Unai, zure arreba da Kontxi. Zu bikoterik ez duen gizona. Julio Markelekin etorri da. Zure beste anaiarekin Unai, eta Kontxiren anaia ere badena. Ekhiñe alaba ekarri du berekin, aurreko bikotekide batena. Kontxik horrez gain, bi biki ere badauzka, Pupu eta Lore. Bederatzi urte. Jose Joakinekin izan ditu, baina ezin da bertan egon lana egin behar zuelako. Baina haren ama bai, hor da Rosario. Eta bederatzi jaten duten lekuan hamarrek ere jaten dutelako, bizilagunari ere etortzeko esan dio Kontxik, Ukrainatik etorritako Aleksei. Ez dakit ardoaren eraginez edo txanpainarengatik den, baina Julio ez da isiltzen bazkaritan. Unaik gutxitan hartzen du hitza, baina ez da oharkabean pasatzen hitza hartzen duenean.

Neurria: Hogeita bost puntukoa, ertainaren moldekoa
Doinua: *Segidilla*

**J. Soto**
Bueno, bueno, hau ze poza!
Goxoa zegon arroza.
Pan! Goian da txanpaina
ta busti dit mingaina.
Hor dago aurrean Kontxi
nik ezin diot egotzi
ez gaitula gonbidatu
ez ditu gutxi kontatu
hortxe dago Aleksei.
Baina gaur ez gara sei
eta atzean Ekhine
nere alaba jator, fine
eta hor dago Markel
ez da Angela Merkel.
Ta bizardunak ez dakit
hartu nau pixka´t kezkati
ze ez dut ezagutzen
lehengo urtean ginuzen
gonbidatu gehiago
baina pentsatzen nago
autoinbitatu dela
ni lehengoan bezela
ez du kasi hitz egiten
hortxe dago irakiten
*raiatuta* munduakin
.....

Neurria: Bi puntuko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

**U. Iturriaga**
Begira Rosario egizu zerbait, eten honen jarioa
norbaitek lotu diezaiola lepoan rosarioa.

Neurria: Hamairu puntukoa, ertainaren moldekoa
Doinua: *Segidilla*

**J. Soto**
Zure ama Rosario
horrek bai, ze hitz jario
bera da jatorrena
denetan gogorrena
bera da Markelen ama
eta hori bada zama.
Ni naiz bikote laguna
horrela da maitasuna
berak ez ninun hautatu
nik hautatu nun ta hartu
ezkondu ginen gerora
eta zer den metafora.
Gero Ekhiñe etorri
....

Neurria: Bi puntuko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

**U. Iturriaga**
Isildu zaitez ze hor dago Aleksei, eta jakizu begira!
Mertzenario bat da izatez neuk ordainduta etorri da.

Neurria: Hamasei puntukoa, ertainaren moldekoa
Doinua: *Segidilla*

**J. Soto**
Eta mertzenarioa
hori arrosarioa
tipo hau gaizki dago.
Ongi al  zegon lehenago?
Hori da nik dudan duda
ez baitu edaten ura
txanpaina ireki dugu
ta zortzi baso ditugu
barkatu ziren beatzi
Aleksei baitzait ahantzi
dena berak edan du
ta neri begitandu
mozkortzen hasi dela
nerabe bat bezela
eta  hara leihotikan
ze ikusten dudan hortikan

Neurria: Bi puntuko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

**U. Iturriaga**
Alekseik hartu du aiztoa ta kolpetik aorta kendu
baina ze arraio gertatzen da hemen? Ze hizketan jarraitzen du.

Neurria: Hamairu puntukoa, ertainaren moldekoa
Doinua: *Segidilla*

**J. Soto**
Hori da gauza normala
zuk ez dakizun bezala
ni nagonez txertatuta
ja hiru dosi hartuta
eta orain laugarrena
nik gorputzean barrena
ja orain naiz inmortala
ta zu pobre mortala
hilko zara segituan
ta ezin konprenituan
hortxe zaude bazkarian
pentsatzen dut aspaldian
orain Jaungoiko naizela
...

Neurria: Bi puntuko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

**U. Iturriaga**
Rosarioren aiztoarekin moztu egin dugu takotan
eta lehen hizketan ari zena orain hasi da bertsotan.





Bertso Eguna. Izpura. 2022-03-26. XDZ

# AZKAINE

2022-01-16

**Bertsolariak**
Xumai Murua, Amets Arzallus eta  Maddi Ane Txoperena
**Gai-emailea**
Lierni Elortza

Azkaingo Herriko Etxeko Biltoki gelan arratsaldez apailatu dute jaialdia. Sarreran bertso eskolako haurrek abestu dute.

**X. Murua – A. Arzallus**

Gaia: Saran bizi haiz Amets, eta askotan tokatu zaik entzutea azkaindarrak harroxkoak direla. Hala ote?

Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

**A. Arzallus**
Nahiz apal mintzatzea batzutan gomenda
azkaindarrak baditu hamaika leienda
Saratik ederra da Larhuneko xenda
Azkainetik so eginez gorago omen da. (bis)



**X. Murua**
Hemen zenbat langile ta zenbat nagi han
bada hainbertze piko herrien magian
Saratik so eginez gu beheiti agian
baina hemen eguzkitan han laino azpian. (bis)

**A. Arzallus**
Ai hemen iguzkitan hainbeste denbora
ta horrek zozotzen du buruko bolbora
begira egon zara zu Sara ondora
han hankak lainopean ta burua gora. (bis)

**X. Murua**
Hitz egiteko'tuzte beraiek ahalak
baina xuri-xuriak atorpean azalak
denak ez dia zue gisan luze ta makalak
gehiengoak dira han ttipi ta zabalak. (bis)

**A. Arzallus**
Baina jakin ttipiek soa xut dutela
ta Sarako elizan hitz zahar bat badela.
Azkainen ze kopeta eta ze gibela!
Nehork azken orenik ez balu bezela! (bis)

**X. Murua**
Azkainen bizi gira bakean, lorios
elkartasunez eta denak bozkarioz
baina saratarrak han bekaizti, kurios
gutaz gaizki erraka ta gainera jelos. (bis)

**A. Arzallus**
Zubi bat ere bada hor Azkainen berdin
lau harri gorri ditu eta hiru urdin
diote "Hori zuten romanoek egin"
Bai, segur Julio Cesar izan zela hargin! (bis)

**X. Murua**
Bertso inspirazioz banaiz ni egarri
zubi hortan ibili ohi naiz lasai sarri
eta elkarrizketan zubiak elkarri
Saratik omen ziuzten harri hoik ekarri. (bis)

# ELGOIBAR

2022-01-21

**Bertsolariak**
Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita
**Gai-emailea**
Idoia Anzorandia

Makina Erreminta Museoan egin da *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua. Ixak Arruti gitarrarekin eta Gari Otamendi biolinarekin aritu dira bertsolariak laguntzen.

**U. Alberdi - M. Amuriza – On. Enbeita**

Gaia: Lankideak zarete. Fabrika berean egiten duzue lan bertsolariak fabrikatzen. Gorputzeko atal guztiak egiten dituzue zuek. Nolakoak dira?

Neurria: Seikoa, txikiaren moldekoa, 3 puntuz
Doinua: *Estutzen ez bagaitu*

**On. Enbeita**
Ideia korrektoen
luze garraio
honi guztia ondo
irtetzen zaio
ta ze arraio!
"Error larehun eta lau"
jarri behar zaio.

**M. Amuriza**
Kotxetan txakur baten
muñekoan pare
funtzionatzen dabe
alderik alde (bis)
juxtu-juxtu burua
mugitzen dabe.

**U. Alberdi**
Lehen serioa eta
hain neurrikoa!
Ta Onintza izan zen
malkoz itoa (bis)
bihotza izan zun lehen
prototipoa.

**M. Amuriza**
Moldea betetzeko
gorputza hauta
ta oinetatik hasten
gara aupa, aupa! (bis)
Poltsikoak dituzte
inkorporauta.

**U. Alberdi**
Denak txapelarekin
lehengo legean
baina aldatuz doaz
gaurko mendean (bis)
eta ez dira sartzen
molde berean.

**On. Enbeita**
Onintzak sortu zigun
hainbat endredo
egin gendun *otxentai
tresean* edo (bis)
uholdeek fabrika
hartu ta gero.

**U. Alberdi**
Buruan engranaje
bat oso azkarra
errimak soldatzeko
bigun samarra (bis)
eta lepotik behera
pieza bakarra.

**On. Enbeita**
Lehen lanak emanda
ai ernegua!
Aldatu egin genuen
gure eredua (bis)
orain trokelak badu
sentimendua.

**M. Amuriza**
Dinosaurioak berpizten
ei dago marka
fabriketan sortu da
dema galanta (bis)
kontuz igual Txirrita
altxako da ta.

**On. Enbeita**
Nahiz tornilloak josi
esku ta arnas
berez ezin dut neure
ai damuagaz! (bis)
Lujanbioren moldea
apurtzeagaz.

**M. Amuriza**
Zurrunegi daudela
da euren hitzak
ez ei ditu sinisten
herri bakoitzak (bis)
eskerrak negar eiten
daben Onintzak.

**U. Alberdi**
Ta behin Amuriza bat
gendun atera
ta mundua jarri zen
oso artega. (bis)
Bigarrena irten zan
ez da bat bera.

**On. Enbeita**
Baina begira gauzak
nola joan ziren
zaharrak jarraitzen du
ahalik ta finen (bis)
igual pilak jartzean
pasatu ginen!

**M. Amuriza**
Arrazoia daukazu
ta Onintza benga!
Amuriza oraindik
hor ibiltzen da (bis)
bere burua entzunda
rekargatzen da.

**U. Alberdi**
Ta egurrari atera
gero dizdira
Enbeitatarren saga
guztiz handi da (bis)
*Piniponak* bezala
ugaltzen dira.

**On. Enbeita**
Enbeitarrena da
luze samarra
igual erabakia
izan zan txarra (bis)
Txinara bidali zan
pieza bakarra.

**M. Amuriza**
Eta Lizasorengan
ere fijatu
marka hori nahi nuke
neuk patentatu (bis)
ze berrogei urtean
ez da aldatu.

**U. Alberdi**
Fabrikan hainbeste ta
plazan hain gitxi
finalean bakarra
ez al da bitxi! (bis)
Oholtzak hartu edo
fabrika itxi.



Korrika Kulturala. Bertso saio musikatua. Baiona. 2022-03-30. XDZ



# TOLOSA

2022-01-22

**Bertsolariak**
Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Iker Zubeldia
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Ataria multimediaren alde urtero Leidorren egiten den jaialdia. Oraingoan aforoa mugatuta 600 lagunek bete zuten aretoa. Eszenatokia bi erraldoiekin apainduta zegoen. Gaiak emateko garaian askotan erabili zen bideo proiekzioa.

**M. Lujanbio – I. Zubeldia**

Gaia: Guraso batek beti egiten ditu aurreikuspenak seme-alabak nolakoak izango diren. Zuek ama-semeak zarete. Maialen, nolakoa irudikatzen zenuen izango zela zure semea? 40 urte ditu eta, espektatibak bete al dira?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

**M. Lujanbio**
Ni espektatibekin
ai nintzen kezkatzen
baina bete behar zena
bat ta bakarra zen
nerabezaroan zu
hainbeste tentsatzen
berrogerira iristerik
ez nuen pentsatzen. (bis)

**I. Zubeldia**
Parranderoa nintzen
ez al zenekiten?
Ostialetik jaira
beti irakiten
batzutan goxo xamar
gehienetan kirten
ez naiz onena baino
gaizki ez naiz irten. (bis)

**M. Lujanbio**
Hortan zerbait badezu
zuk amaren kutsu
ikasketa izan da
nere malko putzu
FP ta gero BUP
ta gero COU aizu!
Modelo zahar guztiak
kixkali dituzu. (bis)

**I. Zubeldia**
Liburuekin *feeling*[1]
haundirik ez nuen
lanean hasi nintzen
utzi ta ondoren
unibertsitatera
joan banintzan lehen
oaindik biziko nintzen
zure aldamenen. (bis)

**M. Lujanbio**
Ba apenas neregandik
hain urrun zabiltzan
jatera etortzen zera
hala komeni zan
gero sofan geldirik
harri baten gisan
alperra izateko're
alperregi izan. (bis)

**I. Zubeldia**
Bazkaltzera puntual
amarena garaiz
bueno ez naiz deabru
baina ez naiz apaiz
ta errieta berriz
egin izan dit maiz
monjek ez lapurtzekin
damutzen ari naiz. (bis)



1 "Filing" ahoskatu zuen

**M. Lujanbio**
Estudiatzen ez zendun
hamaika fantasi
baina zerbait behar zan
mugitu arazi
Indarren edo Orklin[2]
lanean zan hasi
ta alperrak amak baino
gehio irabazi. (bis)

**I. Zubeldia**
Fabrikan kentzen ditu
eskuen herdoiak
diruz beteta dauzkat
beheak eta goiak
arrazoi haundia du
amaren sermoiak …
Bihar ordu batetan
jarri makarroiak. (bis)

**M. Lujanbio**
Makarroiak edota
paella bestela
pentsa'zazu semea
jarriko detela
nere espektatiba da
ni zahartzean, bela
zuk zainduko nazula
markesa bezela. (bis)

**I. Zubeldia**
Aman aldamenean
hainbeste aldarte!
Sofan siesta eginez
hor nabil jo ta ke
azkeneko kontu hoi
ez det entzun bate
bueno, presaka nabil
eta bihar arte. (bis)



**N. Ibarzabal**

Gaia: Zuk jarri Nerea, pantailako argazkiari oin oharrak. (Movistar txirrindulari taldeko argazkia agertu da pantailan; bertan ageri dira eserita gizon eta emakume txirrindulariak. Gizonezkoek hankak zabal-zabalik dituztela, eta emakumeak, berriz, hankak itxita).

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Oso polita zara izatez*

**N. Ibarzabal**
Honek zabaldu honek zarratu
zabaldu eta zarratu
generoaren hanka joko bat
inoiz ez dena zahartu
batek birritan pentsatu gabe
zabaltzen ditu bi arku
ta hurrengoak estutu eta
ahal duen lekuan sartu
esaten dute "Aurrera neskak
ekin ta lekua hartu!"
eurek betetzen duten lekuaz
antza ez dira ohartu. (bis)

Ta multzo batek sentitzen badu
askatasuna bider bi
beste multzoei geratzen zaigu
soilik askatasun erdi
esan ziguten "Egon isilik
ta ez nabarmen ageri
hanka sendoak izanagatik
ez erakutsi gehiegi
gurutzatuta ez utzi sartzen
inori edo ezeri
nesken moduan zutitu eta
nesken moduan eseri". (bis)

Izan ziklista talde bat edo
izan tabernako festa
izan treneko eserlekua
edo kaleko protesta
gorputz mota bat besten gainetik
sarri gailentzen da, ezta?
Baina besteok geldi egoteko
ez ginen sortu berez ta
lasai zabaldu hankak, belaunak
zein ukondoak trabeska
gure gorputzek ere libreki
egin dezaten gainezka. (bis)

2 Indar eta Orkli, Goierriko bi enpresa

# ETXARRI-ARANATZ

2022-02-06

**Bertsolariak**
Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Eneko Lazkoz, Oihana Iguaran eta Julio Soto
**Gai-emailea**
Saats Karasatorre

Sei euroko sarrera ordainduta, 70 lagun bildu ziren Santa Ageda egunaren biharamunean Kultur Etxeko antzokian.

**A. Sarriegi – A. Martin - E. Lazkoz - O. Iguaran - J. Soto**

Gaia: Txinatarrek urte berria hasi dute: Tigrearen urtea. Zuek ze animaliarekin lotzen duzue 2022a?

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz gero*

**A. Sarriegi**
Orain bi urte izan zen
xaguzaharrarentzako
iazko urtean ere
gu gozamenetik kanpo
nik hartzarena hartuko nuke
zergatik ta zertarako?
Lotatik jaiki eta bizitzen
hasi behar degulako.

**A. Martin**
Bi ahate izan litezke
bi zenbakien ordena
tigre jauzi bat ez behintzat
erortzea baita kondena
kameleoia izan liteke
mingainez eusteko dena
egokitzea izango baita
aurten inportanteena.

**E. Lazkoz**
Aurretik pasa duguna
ez da izan ez gozoa
datorrena izan dadin
ederra ta erosoa
ze animali hautatu, ta nik
ideia bat kuriosoa
xaguxarrik ez baldin badago
Noeren arka osoa.

**O. Iguaran**
Azal mudan den suge bat
lurra igurtziaz iaio
marmota udaberrian
edo altan den papagaio
tximeleta bat hegan abian
harrari esana aio!
Edo Fenix bat behar da aurten
ta errautsetatik jaio.

**J. Soto**
Erreforma Laborala
onartu da azken baten
Ukranian zer pasatzen den
ez da errez antzematen
ta gu bozaldun zakur mutuak
irrifar bat eramaten
aurtengoa're pasako dugu
zerriei bazka ematen.

# ORDIZIA

2022-02-11

**Bertsolariak**
Saioa Alkaiza, Nerea Ibarzabal eta Iker Zubeldia
**Gai-emailea**
Igor Eguren

Emaneurre taldeak antolatuta, Tximista sagardotegian 100 lagun inguru bildu dira afaldu eta ondorengo bertso saioa entzuteko. Bertsolariek zutik kantatu dute horretarako prestatutako lekuan. Librean zati batean eta gaiak jarrita bestean.

**N. Ibarzabal – I. Zubeldia**

Gaia: Orain hilabete batzuk euskarari eta bertsolaritzari egindako ekarpenagatik eta Emaneurre taldearen iniziatibaz, Ordiziako Andra Mari kalean, tabernen aurrean, Lazkao Txikiren irudia edo murala egin zen. Baina, badakigu historiak bere bueltak dituela eta egin beharreko bueltak gainera, eta Ordiziako Koordinakunde Feministak eskaera egin du. Lazkao Txikiren irudia dagoen bezala, Nerearena ere aurreko paretan jartzeko. Irudi hori pareko horman jarriko dela pentsatuz, aurrez aurre jarriko ditugu Nerea eta Lazkao Txiki.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*



**I. Zubeldia**
Ze-nolako sorpresa
hau da abelera!
Oraindik Ordizian
bizi da euskera.
Joxe Migel ekarri
dute paretera…
Ni Lazkao Txiki naiz
eta zu zein zera?

**N. Ibarzabal**
Nik ere bota ditut
maiz bertso argiak
irabazi txapelak
kopak ta sariak.
Izanagatik txiki
edo nabariak
gizonentzako beti
pareta handiak!

**I. Zubeldia**
Hor marraztu zaituzte
buru eta lepo
ni ere hemen negon
osorik, konpleto.
Zure abildadekin
harritu naiz seko
ondo kantatzen dezu
neska izateko!

**N. Ibarzabal**
Neskek jartzen diogu
honi pasioa
erriman zein neurrian
dugu akzioa.
Zu hil, gero ni jaio
ze amorrazioa!
Ea ote naizen zure
reenkarnazioa.

**I. Zubeldia**
Hitz hori ez det ulertu
hala´re jo ta su
jarraitu behar degu
eman arte musu.
Engainatu egin nau
engainatu nauzu
bertsolari onen baten
andrea zera zu.

**N. Ibarzabal**
Nire etxean neu soilik
jaio naiz artista
ez dut jarraitu behar
beste inoren pista
idoloak ezautzea
pena da aldizka
nire irudimenean
ez zinen matxista.

**I. Zubeldia**
Reenkarnazio matxista
hara, hara, hara!
Eskutatik joanda
ez al dau euskara?
Baina zuri begira
natorre plazara
egunsentia baino
dotoregoa da!

**N. Ibarzabal**
Piropo zaharkituak
ondo gordeak zuk
buruz dakizkit zure
bertso bikain batzuk
posterra neukan gelan
ta liburuak zut
ta pixka't bada ere
oindik maite zaitut.

# LASARTE-ORIA

2022-02-12

**Bertsolariak**
Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Uxue Alberdi
**Gai-emailea**
Miren Agur Meabe

Xirimiri elkartean egin dute urteroko bertso saio literarioa. Lasarte-Oriako irakurle taldeak antolatuta, aldiro idazle batek gidatuta beti bertsolari berak aritu izan dira. Oraingoan, COVID egoera dela eta, saioa bakarrik egin dute, aurretik afaririk egin gabe. Horregatik izan da arratsaldeko seietan.

**M. Lujanbio - A. Labaka - U. Alberdi**

Gaia: Librean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**A. Labaka**
Zuek ba al dezue
tripan zomorrorik?
**M. Lujanbio**
Zikin xamarrak neri
ez dit kentzen lorik.
**U. Alberdi**
Nik orain jango nuke
ba behi bat osorik.
**A. Labaka**
Baina tripazorriei
ez egin kasorik.

**M. Lujanbio**
Hemen dago jendea
ezer'e jan gabe
**U. Alberdi**
kultura irentsi dute
ta ez daude hain grabe.
**A. Labaka**
Okerrago ez dago
alkohol ta edabe.
**M. Lujanbio**
Zurito bat ere ez
ze kalamidade!

**U. Alberdi**
Miren Agurrek in du
bere misioa
**A. Labaka**
eta guk josi degu
gero fikzioa.
**M. Lujanbio**
Bere Wikipediak
ze extensioa!
**U. Alberdi**
Gure jakintasuna ta
erudizioa!

**A. Labaka**
Eta ez dakit ziur
nahastu garen munduz.
**M. Lujanbio**
Bertan egon gara gaur
gu zenbait segunduz.
**U. Alberdi**
Aizu ez da hain erreza
bat-batean landuz.
**A. Labaka**
Nik baino gehio daki
Lasarteri buruz.

**M. Lujanbio**
Dena arakatu du
zentroa, baztarra
**U. Alberdi**
ta ibai barreneko
arrainen batzarra
**A. Labaka**
ta Brigidatarrena
ere ez zen txarra.
**M. Lujanbio**
Hortako Lekittotik
etorri beharra!

**U. Alberdi**
Eta asto txikia
ta zaldiarena
**A. Labaka**
izan da entzun degun
saiorik onena.
**M. Lujanbio**
Ni identifikauta
gorputza ta sena.
**U. Alberdi**
Ze ederra den eitea
Lujanbiorena.

**A. Labaka**
Gaurkoan zure lana
ez nola halakoa.
**M. Lujanbio**
Gero labezomorro
ta beltz gisakoa.
**U. Alberdi**
Bitxi asko izan zera
gaurko halakoa.
**A. Labaka**
Lehenik labezomorro
ta gero astoa.

**M. Lujanbio**
Bata ze izango den
ezin baita jakin.
**U. Alberdi**
Gero ondo moldatu da
lamia zaharrakin
**A. Labaka**
eta gazteenari
barruak irakin.
**M. Lujanbio**
Bai zaharra ere deitu dit
disimuluakin.

**U. Alberdi**
Baina irakurri duzu
zuk Mari Luzena.
**A. Labaka**
Hori da liburuRik
luzetan luzeena.
**M. Lujanbio**
Ze problema amodio
romantikoena
**U. Alberdi**
edo eta atsoa
Eskisabelena.

**A. Labaka**
Hor jarri dizkigute
nahikoa liburu.
**M. Lujanbio**
Denak letu ditugun
ez nago seguru.
**U. Alberdi**
Gu hala ibiltzen gera
hemen buruz buru
**A. Labaka**
eta falta direnak
letuko ditugu.

**M. Lujanbio**
Idazle azaldu da
kuadrilla earra
**U. Alberdi**
ta oraindik badago
gehioren beharra.
**A. Labaka**
Hemen erdia edo
ez lasartearra.
**M. Lujanbio**
Igual zu izango zera
bertako bakarra.

**U. Alberdi**
Entzule selektoa
hurbildu zaiguna
**A. Labaka**
eta barruan sortu
zaigu oihartzuna.
**M. Lujanbio**
Bapatekoa ez baita
letrazko jarduna.
**U. Alberdi**
Eragiten duzue
urduritasuna.

**A. Labaka**
Zuen aurrean jauzi
ohi zaigu maskara
**M. Lujanbio**
aurrez aurre holako
eskasak baikara.
**U. Alberdi**
Baina humanoak gara
diot badaezbada.
**A. Labaka**
Gaizki egiten badegu
zuen errua da.

**M. Lujanbio**
Gero denborarekin
mejoratzen dira.
**U. Alberdi**
Maskararekin zeuden
begira-begira
**A. Labaka**
ta ehun bat irriparre
bazeunden guztira.
**M. Lujanbio**
Aurten egin degula
kontua hori da.

**U. Alberdi**
Idazle batzuk ere
pasa dira jada
**A. Labaka**
eta sortu dituzte
nahikoa algara.
**M. Lujanbio**
Ja bidean jarriak
Nobel saritara.
**U. Alberdi**
Miren Agur heldu da
Espaini hortara.

**A. Labaka**
Eta tokatuko da
txaloka hastea
**M. Lujanbio**
*Premio Nacional* baita
a ze kontrastea!
**U. Alberdi**
Nahiz ta bere letra den
mugetan askea
**A. Labaka**
ta berak bezain ondo
zail adieraztea.

**M. Lujanbio**
Gaiak jartzen ere da
Sari Nazionala.
**U. Alberdi**
Gama behintzat gaur zeukan
bai zabal-zabala.
**A. Labaka**
Oriara ekarri
digunez kresala
**M. Lujanbio**
ez zekina ere egin du
jakinda bezala.

**U. Alberdi**
Maialen hori da gure
espezialidadea.
**A. Labaka**
Batzutan nabaritu
ta orduan grabea.
**M. Lujanbio**
Horko Brigida eta
horko abadea.
**U. Alberdi**
Berak badakiela
hori da aldea.



Aixita sariketa. Irurtzun. 2022-05-14. XDZ

**A. Labaka**
Bitan izan gaitezke
deabru ta aingeru.
**M. Lujanbio**
Nik nahiago det hemen
ez lurpe ta ez zeru.
**U. Alberdi**
Gauk festa santu izenak
esan ditzakegu.
**A. Labaka**
Edonor izatera
ohituta gaude gu.

**M. Lujanbio**
Gainera gu hirurak
urtero-urtero
**U. Alberdi**
aspertuta egongo
dira honezkero.
**A. Labaka**
Beste inori deitzerik
ezin da espero.
**M. Lujanbio**
Holaxe zahartu gera
pasa eta gero.

**U. Alberdi**
Guk Lasarten daukagu
kontratu fijoa.
**A. Labaka**
Gero ez esan denik
herri bat pijoa.
**M. Lujanbio**
Aurtengoa're bide
beretik dijoa.
**U. Alberdi**
Ni hilero-hilero
sakontzen nijoa.

**A. Labaka**
Hurrengo asteartean
da hurrengo zita.
**M. Lujanbio**
Ze liburu behar da
hona etorrita?
**U. Alberdi**
Hedoirena hor dezu
beitu ze azal polita!
**A. Labaka**
Nik jadanik bi aldiz
det irakurrita.

**M. Lujanbio**
Letu gabe ere errez
eiten da itxura.
**U. Alberdi**
Joxe Mari *Porrotx*ek
eiten dun modura.
**A. Labaka**
Batzuk hola iritsi
ohi dira lekura.
**M. Lujanbio**
Ze metafora eta
ze literatura!

# LEZO

2022-02-19

**Bertsolariak**
Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Oihana Iguaran eta Jone Uria
**Gai-emailea**
Unai Elizasu

Gezala areto txikian goxo bildu dira bertsozaleak larunbatean, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

**On. Enbeita – O. Iguaran**

Gaia: Oihana musikaria zara. Kantatzen duzu, Youtubera igotzen dituzu kantuak, badituzu jarraitzaileak... Baina zure lanarengatik oso utzia duzu hori. Ez duzu denborarik zure pasioa aurrera eramateko. Ordenagailutik begia kendu ezinik zaude, bi metrotara Onintza gitarra duzula.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Seme ezarri bainauk*



**O. Iguaran**
Gaztetan pasioa
neukan irakiten
ordu libre guztiak
hatzei eragiten
igotako kantuen
emandako kliken
artetik zer ez ote
zait aldera irten?
Ta kilimarik ez det
aspaldi egiten.
Kilimarik ez dizut
aspaldi egiten.

**On. Enbeita**
Begiratzen didazu
pantailatik trabes
ta horman kontran nago
moldez eta aldez
zentzuna zure eskutan
bakarrik dudanez
etorri hona zeure
artez eta artez
kendu zaidazu hautsa
aspaldiko partez. (bis)

**O. Iguaran**
Hamar orduko lana
ordubete bide
nekatuta egotea
denez eskubide
kanturako ja ez naiz
sentitzen hain libre
baina zu besarkatuz
berriz adiskide
hura dut ogibide
ta zu bizibide. (bis)

**On. Enbeita**
Bizibidea izan
nahi duzu musika
baina aspaldi zaude
doinuak utzita
begiak nekatuta
pantailan jarrita
besterik ikusi ez
klika eta klika
nirekin kapaz zinen
begiak itxita. (bis)

**O. Iguaran**
Youtubeko hitzek ta
protesta aldarrik
aspaldi izan naute
nekatu xamarrik
baina berez ez daukat
horien beharrik
gaur kamara pizteko
ez daukat indarrik
ta kantatu nahi nuke
guretzat bakarrik. (bis)

**On. Enbeita**
Dakidala lekuko
ni bakarrik nago
zure artearen zain
geldirik luzaro
kantatu nahi zenuke
libre ta oparo
kantatu nahi baduzu
ez da hain arraro
hariak mugitzea
zure esku dago. (bis)

# ZORNOTZA

2022-02-20

**Bertsolariak**
Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Etxebarriazarraga, Maialen Lujanbio, Anjel Mari Peñagarikano eta Jone Uria.
**Gai-emailea**
Asier Irakulis

Aforoa beteta. Realeko aulkian, Amets, Andoni eta Maialen. Athleticen aldetik Aitor, Anjel Mari eta Jone. Saio hasieran zenbait omenaldi egin dira. Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak Athletic Club Fundazioaren 2021eko Aintzatespen Saria jaso du. Mikel Jauregi bertsozale zornotzarrari Realeko eta Atheticeko kamiseta bana eman diote bertsolariek.

**A. M. Peñagarikano – J. Uria**
Gaia: Eli Ibarra izango zara zu, Jone, eta Erika Vazquez Anjel Mari. Athleticen partida gehien jokatu duten neska zen orain arte Eli Ibarra, eta Erika Vazquezek lortu du errekor hori gainditzea. San Mamesen elkartu zarete Erikaren omenaldian.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

**A. M. Peñagarikano**
Horrenbeste urtetan
jardun eta jardun
gainera izan nahi nuen
jokoan euskaldun
gauza asko ikusten
nituen hain urrun!
Orain elkarrekin ta
aitortu dezagun
Eli zu zaitudala
lehen bezain lagun. (bis)

**J. Uria**
Biok egongo gara
albotik begira
gure rekorrei heltzen
zaien despedida
baina gauza erreza
ere ez dago tira!
Jendea ez dabil azkar
minez erretira
hortarako baldintzak
jarri behar dira. (bis)

**J. Uria**
Biok baikara talde
bereko alaba
eta hobetzen doa
ai azken bolada
emakumeen futbolak
horrenbeste traba
garaiz utzita duten
neskatxen ilada!
Rekorra gainditzea
seinale ona da. (bis)

**A. M. Peñagarikano**
Erika eta Eli
gu ez gera arrotz
ta guk egin duguna
ez da geratu motz
eta jarraitutzea
hobe dugu askoz
gero esan dezaten
denek bere ahoz
"Bi on joan ziran baina
hobeak badatoz!". (bis)

**A. M. Peñagarikano**
Ba zu ere ez zinen
batere makala
denek esaten zuten
"Eli mundiala!"
Nik banekin rekorra
oso gaitza zala
ta apurtu egin dut
uste ez bezala…
Nerea ere norbaitek
apurtu dezala! (bis)

**J. Uria**
Hobeak baietz heldu
ta gerra ematen
ta guk segiko dugu
sari eramaten
inbidiarik gabe
ta denak poz baten
ia guztiok berdin
egin genezakeen
eta segitzen dugun
eredu izaten. (bis)



Señora Sariketa. Laudio. 2022-05-21. XDZ

# BAIGORRI

2022-03-05

**Bertsolariak**
Patxi Iriart eta Mizel Mateo

250 bat pertsona elkartu da libertimendua ikusteko Baigorriko plazan. Libertimenduaren baitan ari dira bertsolariak kantuan. Hots, dantza saio eta antzezpen bakoitzaren ondotik, esketx bakoitzean agertu den sujeta kanturako gai gisa hartuta ari dira. Gazteak eta politika gaitzat duen esketxaren ondokoa da ekarri dugun bertsoaldia.

**P. Iriart - M. Mateo**

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Gizona da zoroa*

**P. Iriart**
Prefeta dugu lasai hemen ta lasai han
Donibane Lohizunen banderekilan lan
ebasten baitituzte gazteek jarraian
bertan erretzen ziren Bidarten garaian. (bis)

**M. Mateo**
Jendeek badutela indar ta bertute
frantses banderak kentzen orain zenbait urte
Baina baliorik du ez zazula uste…
Denentzat mokanesak egiten dituzte! (bis)

**P. Iriart**
Gazteri bat galdua da gaizoa kale!
Marx leitu edo festa eta festan bale!
Bi hautuak dituzte hausnartu edo ele
hautua koka jale edo koko zale! (bis)

**M. Mateo**
Garbitu nahi dute, hemendik jabea
ta besteek mundu bat nahi zikin gabea
denek amesten dute mundu bat hobea
modan dira gaur egun gorri ta berdea. (bis)

**P. Iriart**
Lehen naiz elizari begira jarria
ta hemen entzunari hartu dut neurria
hautua da berdea bestea gorria
komunista izanen al da Mesias berria? (bis)

**M. Mateo**
Mundua aldatzea dute haien xede
GKS pintatzen aritzen da trebe
zerbait ahantzi dute beraiek halere…
Kapitalismoak sortu ditu haiek ere! (bis)

**P. Iriart**
Mundu hontan sortu dira, ai behar da aipa
bainan kontzientzia hartu dute nahita
beren bidean dira aitzina jarraika
badakite hil behar dutela bere aita. (bis)

**M. Mateo**
Lasai ez ditugu nahi horiek omendu
nahiz ta inarrosi, haiek lur ta zeru
Patxi barkatu baina isildu gaiten gu
publiztate gehiegi egiten diegu. (bis)

# DONOSTIA

2022-03-05

**Bertsolariak**
Saioa Alkaiza eta Miren Artetxe
**Gai-emailea**
Maite Berriozabal

*Baginen Bagara* erakusketa antolatua du San Telmo museoak. Emakume artistek artearen historian izan duten presentziari buruzko hausnarketa bat izan nahi duena. Eta erakusketaren harira bertso saioa egin dute bertako aretoan.

**S. Alkaiza**

Gaia: Hemen ikusten duzuen obra hau, Mari Puri Herreroren *Sobresalto a los campistas* da. Euskal Herriko bilduma publiko guztietan lanak dituen arren eta izen ezaguneko artista izanda ere, aurten ospatzen da Mari Puri Herrerok museo batean egindako azken banakako erakusketaren hogeita hamabosgarren urtemuga. Hain zuzen ere, 1986an egin zuen Bilboko Arte Ederretako Museoan. Euskal artearen berrikuspen historikoa behar dela aldarrikatzen da. Birpentsatu egin behar dira museoetako erakusketak. Programazioa berrikusi egin behar da. Zergatik ez egin Txillidaren ordez Mari Puri Herreroren obrak erakutsiko dituen erakusketa bat? Zu amarekin etorri zara gaurko erakusketa ikustera. Zure ama etxean gogoratzen duzu umetatik margotzen. Beti arteaz interesatuta eta denbora tarte bat zuen bakoitzean, pintzelarekin hara eta hona ideiak hartuz, margotuz. Eta berak izan zuen erakusketaren berri eta esan zizun "Saioa joango gara? Lagunduko didazu? Ikusiko dugu?" Eta sartu zarete erakusketan eta badaramazue 40 minutu. Zu pixka bat nekatu zara eta eseri zara ertz batean eta zure amak obraz obra, ertzez ertz, testuz testu, jarraitzen du erakusketa ikusten. Eta hortxe zaude zu apur bat nekatuta, ertz batean eserita, zure amari begira.



Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Lo hadi ainguria*

**S. Alkaiza**

Kuadroak paretean
daude dindilizka
berdea ta urdina
horia, gorrixka.
Ta amak iltzatuta
du haiengan bista
eta haren barnean
gorderik artista.

Zeren ama ilusioz
etorri da hona
dio erakusketa
dugula kristona.
Balioetsia litzake
zenbat txalo tona?
Gure ama izanen
balitza gizona.

Baina ez da ta egon da
hura ezkutuan
gure etxean pintatzen
talante mutuan
saririk ez du izan
sekula gertuan
bera sortzaile zela
ezin ulertuan.

Ta orain irribarre bat
dauka ezpainetan
eskertuta baitago
lehengo mihisetan
baina justiziaren bat
genuke gaur bertan
gure ama balego
hemen kuadroetan.

Hala´re positiba
da emakumea
ta dio bera dela
txikia, xumea
ta pozten da gozatuz
egitan unea
neskek hartu baitute
gaur erdigunea.

Ta nik besotik heldu
ta "Guazen etxera
tabernaren batean
goxo afaltzera".
Pozez saltoka doa
plazaraino bera
ume txikiak plazan
dabiltzan antzera.

Eta izenburua
ekarriz bertara
lehengoen oroitza gaur
gure begitara
lehen bazinen, bagina
edota bagara
mundua aldatu da?
Igual, beharbada.

Monografikoaren bat
ez delako izan
eta ama pozik joan
da lehengo baldintzan
argi izpi bat jarri
dugu haren grisan.
Ea errepikatzen den
sortzaileen bizitzan.

Tarterik utzi gabe kantatu ditu bertso guztiak; aurrekoa bukatu orduko hasiz hurrengoa.

**M. Artetxe – S. Alkaiza**

Gaia: Miren, Tinder bidez ezagutu duzu norbait eta astebetez egun eta gau hitz egiten aritu ostean, gogotsu bezain urduri abiatu zara gaur Zarautzetik Donostiarantz. Izan ere, San Telmo museoan dagoen "Baginen bagara" erakusketa bisitatzea erabaki zenuten zuen lehenengo zitan. Bertan ezagutuko duzue elkar aurrez aurre. Errepidean zoazela baina, bide bazterrean auto bat ikusi duzu geldi. Eta kanpoan eskuak altxa eta laguntza eskatzen ari den norbait. Autoa gelditu duzu bide bazterrean eta autotik irten bezain laster ohartu zara Saioa ezagutzen duzula, eskuak altxatzen ari dena. 15 urtetik 30 urtera arte zure bikotekidea izan zen Saioa. Beste gauza askoren artean astuna, intentsoa eta oso erromantikoa zelako utzi zenuen. Berarengana gerturatu zarenean, honela esan dizu Saioak. "Joe, merezi izan du autoarekin bazterra jotzeak, horrek zu berriz ikustea esan nahi badu".

Neurria: Seikoa, txikiaren moldekoa, 3 puntuz
Doinua: *Estutzen ez bagaitu*

**S. Alkaiza**
Jo, ze ongi joan naizela
lehen batxean
zu paretik zentozen
horko basean. (bis)
Bonboiak zuretzako
dauzkat atzean.

**M. Artetxe**
Bonboiei ez zaiezu
gaur egin kasu.
Sekulako zita dut
Donostin, aizu! (bis)
Hau ere izorratu
behar al didazu?

**S. Alkaiza**
Ze ongi egin dudala
gaurkoan tiro
nere azukre koxkorra
joe, ze giro! (bis)
Antza nere aldera
dago Kupido.

**M. Artetxe**
Utzi albo batera
bere babesa
ta kotxe istripuaz
egizu kexa (bis)
Joe, berriz igo zait
diabetesa.

**S. Alkaiza**
Poztu beharko zinake
Miren nerekin
eta geratu zaren
tipa horrekin (bis)
ni nintzen baina perfil
faltsuarekin.

**M. Artetxe**
Berriz puntu hontara
iritsi gara
zurekin nagon aldi
bakoitza hara! (bis)
Psikologotarako
materiala da.

**S. Alkaiza**
Terapeutak zioen
ta hau da egia
ni nintzela pertsona
tristeegia (bis)
ta bilatu egin dut
laranja erdia.

**M. Artetxe**
Ze naranja, ze limoi
hau da *la pera*
gure bi mugikorrak
orain atera (bis)
nik terapiara dei
ta zuk Mapfrera.

# GETXO

2022-03-06

**Bertsolariak**
Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Miren Artetxe
**Gai-emailea**
Maite Berriozabal

Algortako Muxikaberri aretoan ia ehun lagun bildu dira *Ez da kasualitatea* bertso saioa entzuteko. Araitz Bizkai eta Gari Otamendi aritu dira musikari gisa.

**J. Uria**

Gaia: Azken urteetan etxeetan lapurtzea izan da zure ogibidea. Aurrez ikusi eta zaintzen dituzu jendearen ohiturak. Hori egin, eta Algorta inguruko itxura oneko familia baten etxera lapurtzea erabaki duzu. Sartu zara haien etxera, baina zure sorpresarako aberatsetik gutxi du familia honek.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzen*

**J. Uria**



Zaindu nuen  goizaldea
zaindu nuen eguerdia
zaindu iluntzea eta
arratseko alderdia
eguerdiro poteon ta
horren pozik aurpegia
gimnasiora ondoren
botatzera izerdia
baina hona sartu naiz ta
ai ene ze miseria!
Hemen nago salan duten
banketa hontan eseria
ai gure gizarte honek
ze kalte, ze aberia!
Ze kaltegarria izan
ahal den itxurakeria!

Beren beroki hoiekin
zutenak nahiko talante
beraien alkondara *guai*
euren zapata ta ante
nahiz ta itxuraz zeuden
beti denean jo ta ke
hara zer topatu dudan
nire ustetatik aparte:
hiru aulki ta lau manta
hor hartzekotan estalpe
hiru gauza kutre eta
dena miseria kate
eta pentsatzen jarri naiz
hara ze kasualitate!
Lehen nazka nien ta orain
pena ematen didate.

Nahiz ta Algorta ustez den
diruaren erresuma
antza hemen ere faltan
dute batzuk ondasuna
pentsa ia galtzeraino
euren buru osasuna
kezkatuta ondokoek
zer usteko ta zer suma
diru bila nentorren ta
ze nolako erantzuna!
Nahiz lapur ona nintzela
askotan nuen entzuna
gaur ia esku hutsik noa
ez da txanpon oihartzuna
baina poltsikotan daukat
beraien duintasuna.

# PORTUGALETE

2022-03-11

**Bertsolariak**
Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal eta Etxahun Lekue
**Gai-emailea**
Ander Ezeiza

Korrika kulturalaren baitako saioa izan da herriko merkatuan.

**E. Lekue – M. Amuriza**

Gaia: Etxahun, Euskal Herrian barrena etenik gabeko lasterketa bat egitea otu zitzaion AEK kide hura zara. Zu, Miren, AEKko buru nagusia zara, eta hor datorkizu inuzente hau, horrelako ibilera hori proposatuz.

Neurria: Zortziko handia
Airea: *Esplikatzera noa kontuak*

**E. Lekue**
Atzo afarian lagun batzukaz
triliri eta tralara
lehenengo ardaua ta gero kopak
ta gero ideien ilara
hamar egunean geratu barik
danok hona eta hara
zorakeri bat egin behar bada
handia egin behar da.

**M. Amuriza**
Franco bart hil zen ta dagoneko
ahaztuta al daukazu?
Mahaiaren bueltan zorakeriez
hizketan gabiz ni ta zu
milaka lagun Euskal Herrian
korrika jarri nahi dituzu
ta kotxe-eskoban Guardia Zibila
etortzea nahi al duzu?

**E. Lekue**
Guardia Zibilik ez da faltako
gure ibilbideetan
baina euskara zabalduko da
bide eta ezpainetan
geu joango gara aurretik Miren
hauxe diñotzut benetan
danok ein dogu planak joateko
justo zeure furgonetan.

**M. Amuriza**
Imajinatu nezake Etxahun
lehenengoaren kronika
hiru-lau katuk baino ez dutela
onartu zuen gonbita
nahiz hasieran izan zitekeen
zorakeria polita
denok furgonan joanez gero
nork egingo du korrika?

**E. Lekue**
Herririk herri batuko jakuz
hemen hamar, han hamalau
bardin pasako doguz korrika
arrasti, iluntze ta gau
a ta portzierto ez dotzut kontau
beharrezko dan  detaile hau
zeren jenteak korrika itearren
ordaindu egin beharko dau.

**M. Amuriza**
Praka motxetan jarri nahi dozu
korrika hainbeste jende
eta gainera ordaindu arazo
zeure arau zeure lege
euskalduna da hain lehiakorra
beti apustuen mende
jentea kapaz bata besteai
zankadilla jartzeko ere.

**E. Lekue**
Bideratuko dugu jentearen
barruko indar ta amorru
euskaran alde aurpegia ataraz
ez tranpa ta ez amarru
hamar egunez gelditu barik
geure azal, geure narru
baietz honetaz nonok kantatu
berrogei bat urte barru.

**M. Amuriza**
Ez dot oztopo izan nahi eta
isiltzea neuk e hoba
ez ikusiana egingo dot
zeure kontura mejora
txarto irtengo balitz esangot
"Behar zenuten denbora"
ta bueno ondo irteten bada
joango naiz prentsaurrekora.





Bizkaiko bertso munduko emakumeen* I. topaketa. Markina-Xemein. 2022-05-22. XDZ



# ERRENTERIA

2022-03-12

**Bertsolariak**
Oihana Iguaran, Onintza Enbeita, Maider Arregi eta Alaia Martin
**Gai-emailea**
Amaia Agirre

Niessen aretoan bildutako 150 lagunek zutik eta luze txalotu dituzte oholtza gaineko bertsolariak, musikariak eta Amaia Agirrerekin batera gai-jartzaile lana egin dituzten Inurri taldeko kideak. *Tabuen kutxatik oholtzara bertso saio solidario musikatua* izenez bataiatu dutena, Izan Inurri elkarteak antolatu du, minbizia modu batera edo bestera jasatea tokatu zaienei laguntzeko eta gizartea sentsibilizatzeko taldea. Gertutik bizitako esperientzien harira, bertso musikatuen bidez errealitate hori bistaratzea helburu egin dute jaialdia.

**O. Iguaran – A. Martin**

Gaia: Giza gorputzak 30 milioi milioi zelula ditu. 3-a aurretik eta 13 zero atzetik. Inork agindu beharrik gabe, zelula horiek guztiak elkarrekin koordinatuta bizi dira. Ikastetxera joan gabe, funtzio ezberdinetan espezializatzen jakin dute. Lehendakaririk gabe, programarik gabe, dotrinarik gabe, ahalduntze eskolarik gabe, badakite elkarlanean jarduten, taldearen mesedetan. Eta euren izaera indibiduala alde batera utzita, elkarrekin egindako lan horretatik zerbait handia sortzen da: bizitza.
Gure gorputzean, ordea, gizartean bezalaxe, badira egoistak diren zelulak ere. Superzelulak dira, euren hazkuntza eta ugaltze indibiduala soilik bilatzen dutenak. Mutur-muturreraino bilatu eta baita aurkitu ere. Azken garaipenera arte bizi dute gorputza, euren burua anikilatzera iritsi arte.
Gorputzean guztioi ari zaizkigu etengabe zelula egoista hauek sortzen. Baina gure 30 milioi milioi zelula enpatikoek hainbat mekanismo dituzte zelula berekoiak desagerrarazteko. Batzuetan, ordea, gure gorputzaren babes-estrategia hauek ez dute behar bezala funtzionatzen, eta zelula alfa horiek gailendu egiten dira, eta neurrigabe ugaltzen eta zabaltzen, eta biderkatzen hasten dira gure gorputzean zehar. Lurralde eta territorio berrien konkistan: horixe da MINBIZIA.
Nago gure gorputz barruan naturalki gertatzen den fenomeno honek argi uzten digula bizitza enpatiatik, zaintzatik, eta desberdinen arteko elkarlanetik bakarrik sortu eta mantendu daitekeela; interdependienteak garela ahazten dugun momentutik, konturatu gabe, heriotzarako bidea aukeratu dugula sinetsita gaude.
NIESSENen gaude. Hasieran *ni* ez zen. *Gu* izatean hasi zen *ni* ez zen hura izaten. *Ni* ez zen hemen egongo *gu* ez bageunde. *Ni* ezen negoen eta *gu* baien. *Ni* izan ezen *gu* alferrik da. *Ni* esentziala naiz *gu* horretan, *gu* hori nigan den bezala. *Ni-essen, Gu-asen*!
Hitz egingo dugu taldeaz, kolektiboaz, ahizpatasunaz… *Ni* bat aski da *gu* bat izorratzeko, eta *gu* bat bada izorratuta dagoen *ni* bat goxatzeko gai. Bizitzako zein momentutan sentitu duzue *ni* eta *ni* eta *ni* ez dela *gu*? Baina *gu* badela *ni* askoren batura?

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hemen zizurkildar bat*

**O. Iguaran**
Begirada nahi bada
munduan mantendu
pentsa azken asteetan
han ze mugimendu!
Lurrak konkistatu nahi
ta bere mantendu
ezer egin ezinik
begira geunden gu
*ni* bat haunditu nahiak
*gu*-a suntsitzen du.

**A. Martin**
Zein da suntsiketaren
itzulera xenda?
Zauri batzuk guk ezin
nahi bezela senda
gero hildako baten
mina nola zenba?
Gerra bat bada edo
guda askon zerrenda
*gu* izan behar dena
*guda* bihurtzen da.

**O. Iguaran**
Ta gudan *ni*-a soilik
delako bertute
bi *ni*-k elkar eta *gu*
hautsiz dihardute
hainbeste bonba handi
bizitzaren truke
gorputzean bezala
ulertu nahi nuke
batek garaitzen badu
biek galtzen dute.

**A. Martin**
Galera dago beti
ados naiz horretan
eta erortzen goaz
bidezidorretan
besteek sortutako
auto-zigorretan
bizi behar genuke
ideiez, obretan
begi ninietan, ez
gure zilborretan.

**O. Iguaran**
Guda baten erdiko
bandera zuriak
ihesbideko mugan
sortzen den zubiak
besarkadak goxatuz
gorputz urduriak
bi esku elkar lotzen
diren irudiak...
Maiz inurriak dira
globulu zuriak.

**A. Martin**
Globulu zuri batzuk
gugan parez pare
zabaldu ta hedatu
nahirik aldez alde
zer da indibiduo
eta zer da talde?
Askotan aldarria
egiten dut xuabe
ze gure aurkako tropak
gure baitan daude.

**O. Iguaran**
Ta gure kezkak dira
epai hoien bazka
gure burua hautsiz
maiz ze arrakasta!
Elkarrengan ikusi
genuen gatazka
ta hortik ikasi gendun
elkar nola aska
ta orain kide bakoitza
da nere zen ahizpa.

**A. Martin**
*Gu*-ak ni txiki asko
dauzka magalean
nahiz ta uzten ditugun
deslai, apalean
nahiko gorri badugu
gaur egun kalean
baina segi behar da
eginahalean
kalean eta oholtzan
baina pluralean.

# IZPURA

2022-03-26

**Bertsolariak**
Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina eta Oihana Iguaran
**Gai-emailea**
Aimar Karrika

Izpurako Faustin Bentaberri Gelan izan da ebiakoitz arratsaldez, 2022ko Bertso Eguna. Bertsoa ardatz, musika, dantza eta marrazkia osagai artistikoak izan ditu emanaldiak, Irantzu Idoate lapurtarraren bertsoek eman diote hasiera eta bukaera ekitaldiari. Bertsolariaz gain, beste kultur diziplinetatik jindako Bilaka Kolektiboko dantzariek, Paxkal Irigoien eta Xabi Etxeberri musikariek eta Dom Campistron marrazkilariak jantzi dute ikuskizuna. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak areto berean egin du goizez urteko Batzarra. Ondoren, mokadu bat jan ondotik ehun lagun inguruk bete du aretoa jaialdiaren entzuteko.

**O. Iguaran – U. Agirre**

Gaia: Zu Unai, supermerkatu haundi bateko gozoen apalategia edo erraia zaitugu. Eta zu Oihana dieta baten erdian dagoen bezeroa. Tentaldiari eustea kostatzen zaion pertsona horietakoa. Eta atea zeharkatzen duzun aldi oro "Oihana!". Hor duzu Unai, gozoen erraia deika. Dieta baten erdian gainera, beraz, inoiz baino ozenago entzuten duzu "Oihana!". Edozein modutara zu konbentzitzen saiatuko da. Baina zure estrategia garatua duzu tentaldi horri ihes egiteko ere, "Oihana!" ja bafleetatik aditzen duzu iPhonean ipodak jarri eta musika aditzen duzun bitartean erosketak egiten ari zara baina... "Oihana!" Eta kaskoak bateriarik gabe dituzu! Nork irabaziko du supermerkatuan?



Neurria: Lau puntuko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

**O. Iguaran**
Hor noa azkar egin asmotan pasada
organ arroz integral, barazki, entsalada
kaskoen bateria agortu da jada
ta begiak ixtean zu agertzen zara. (bis)

**U. Agirre**
Denda honetan bada holako taldia
regimeneko danak erotu al dia?
Nahiz arrozera egin lehenengo galdia
hau da pasatzen zeran seigarren aldia! (bis)

**O. Iguaran**
Hemen seigarren aldiz omen nator aizu!
Ta aldiro begira geratzen natzaizu.
Ai zuk ere nerekin etorri nahi duzu
aldiro nata pixkat labaintzen baitzaizu. (bis)

**U. Agirre**
Berdin du burla egin berdin du xuxurla
bere burmuina dakit nun ta nola zula
benga Oihana maitea zuk ez disimula
biok ondo dakigu hartuko nazula. (bis)



Udako bertso barnetegia. Ondarroa. 2022-06-29. XDZ

**O. Iguaran**
Ai aspaldian nabil gosetu xamarrik
ta ez zait burutik joaten zure deiadarrik
begiratzeak ez du kaloria txarrik
benga! Hartuko zaitut ta usaindu bakarrik. (bis)

**U. Agirre**
Aurrena usaindu ta ondoren fereka
baina bere sabela dago neka-neka
benga eraman nazazu kolkoan gordeta
noizbehinka puskatuta hobea da dieta. (bis)

**O. Iguaran**
Tentaldi hau ezin dut jausi gabe jasan
igual hartuko zaitut pakeak har nazan
ta eramango zaitut itxia den kajan
zu usainduko zaitut ta azalorea jan. (bis)

**U. Agirre**
Bere buruai ezin esan dio dana
azalorea omen du mahaierako plana
baina ezin det sinistu Oihanan esana
bihar arte bizitzen izango det lana! (bis)

**S. Colina**

Gaia: Bakarkako gai bat emango dizut, baina gai beraren aurrean hiru bakarkako egitea eskatuko dizut; hiru bakarkakoen lehen bertsoa bakarrik kantatuko duzu. Hauxe da gaia: Leku horretan sartzen zaren aldiro orduko bizipen hura heldu zaizu gogora.

Neurria: Zazpi puntuko berdina, 16 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

**S. Colina**
Hamabi urte nituen edo hamabi ta piku
katixima bukatua nahiz ta ez nintzen aditu
meza ematen ez nintzen ni monagilo aritu
baina hala´re elizan egun haunditan kabitu
bera ez dakit ez gendun apez edo apezpiku
baina eskua sartu zidan "Alto!" esan ta ez zen gelditu
intzentsu usainak gauza gehiegi estaltzen ditu. (bis)

Guztia ez dela trauma nago pentsatzen hasia
etxe hortan ernetu zen gaur naizenaren hazia
aitaren isiltasuna eta amaren grazia
bizitza oso baterako baneukan zer ikasia
etxera itzuli orduko ahazten dut desgrazia
gurasoak besarkatu, mahaian txorixo egosia
horrela itzuli ohi zait nere haurtzaro guzia. (bis)

Ta herrian ibiltzeak ez duenez ezer txarrik
elkarte atzera joan da han ez zen falta pattarrik
nerabeak ginen eta ez ginun eskas indarrik
han pizten zen zorionik eta maitasun pindarrik
lehen musua hantxe eman nuen eta ez alferrik
gainera musu batean ez zen geratu, beharrik!
Baina kantatu dezaket lehen bertsoa bakarrik. (bis)

# BAIONA

2022-03-30

**Bertsolariak**
Miren Artetxe, Odei Barroso, Mizel Mateo eta Haira Aizpurua
**Gai-emailea**
Ekhi Erremundegi

Korrika kulturala kari bertso saio musikatua antolatu du Baionako AEK-k Kalostrape ostatuan. Mukuru bete da aretoa; 80 ikus-entzule guztira. Xabi Etxeberri, Patxi Amulet eta Bastien Marianne izan dira musikariak.

**M. Artetxe – O. Barroso**

Gaia: Korrika heldu dela eta, euskara ikasten ari direnei hitza eman ohi diete hedabide anitzetan. Seguruenik irakurriko zenituzten horietako artikulu batzuk. Nik BERRIAko bat aipatu nahi nizueke. Erabilpenari buruz egunerokoan dituzten erraztasun eta zailtasunei buruz galdetuta, erantzun hauek eman ditu ikasle batek:
«Badira euskaldun zaharrak denetan, baina batzuetan horma bat bada parean. Zuzentzen zaituzte, baina batzuetan blokeatzen du; beti ari zara akatsei pentsatzen... Niretzat ez da naturala euskaraz aritzea. Lotsatia naiz, batzuetan akitua naiz, eta ez dut ahalegina egiteko gogorik, eta anitzetan ez dugu ber hizkuntza. Erabiltzen ditudan hitzak ez dituzte ulertzen; erraten didate ez dela horrela erraten» «Euskaldun berriek ahaleginak egin behar ditugu, bai noski; baina euskaldun zaharrek ere bai»…



Neurria: Lau puntuko handia
Airea: *Geldirik ezin naizela egon*

**M. Artetxe**
Gure herrian bada euskaldun aina ideia ta teori
"Hori ez dago ongi errana, beste hori ez dago ongi…"
Nola liteke harri berean behin eta berriz erori?
Besteei eskatzen diegu ta guk egiten ez dugun hori.

**O. Barroso**
Nahiz ta euskaldun zaharrak askotan hartu dezakeen pena
pentsa euskaldun berriak berak izan dezakeen kondena
eta ez al da euskaldun zaharrok jakin behar genukeena?
Kurtso denboran ez baldin bada zuzentzea ez da zuzena.

**M. Artetxe**
Zenbat alditan egin dugu geuk besteen akatsen zerrenda?
Ta zertarako konpletiboak ta erlatiboak zenba?
Dena ez da ongi, dena ez da "Ze kler!", dena ez da "Klaro!", ez "Benga!"
Dena ez dago ongi, dena ez da erreza baina eroriz ikasten da!

**O. Barroso**
Eguzkiak jo ta altxa ere egin dezake itzalak
lagundu nahian beti ez gira uste bezain zerbitzalak
euskaldun zaharrok karrikan usu botatzen ditugu balak
baina akatsak ez dira beti izaten gramatikalak.

**M. Artetxe**
Zuetako zenbatek AEKn ditu arratsak igaro?
Zuetako zenbat sentitu dira sistema baten esklabo?
Berdin du akatsa, berdin biziki, berdin oso zein zeharo
ze gehienetan elkar laguntza gure begiradan dago.

**O. Barroso**
Norbait ikasten ari delarik bere xokoan euskara
soilik makulu izan behar dugu atera dadin plazara
nahiz ta hamaika akats egin hor ikasten aritzen bada
bere euskara ez da onena, euskara ederrena da.

**M. Artetxe**
Denen artean eraiki behar badugu herri amestua
nor da aski euskalari ona, aski euskaltzain prestua?
Nork du beti hain eztarri finko, mardula baina estua?
Hobetzeko deus ez duen horrek altxa dezala eskua!

**O. Barroso**
Neri berdin zait *nor-nori-nork*a berdin hamaika istori
gure baldintza soilik delako zuk "Hartu!" eta nik "Tori!"
Neri berdin zait egiten diren, lasai, akats bat edo bi
zeren hizkuntza ezin da izan erabiltzen ez den hori!

**M. Artetxe**

Gaia: Euskararen egoera aipatzean anitzetan erabiltzen da baso erdi betearen eta erdi hutsaren irudia. Batzuek diote anitz aitzinatu garela; besteek oraindik oso egoera larria dugula. Orain dela hamabost urte sortu zen EEP, eta hizkuntza politika bat martxan da. Baina azken inkesta soziolinguistikoaren arabera %20 inguru dira euskaldunak Ipar Euskal Herrian. Hezkuntza publikoan euskarazko irakaskuntza gero eta leku gehiago hartzen ari da, baina Ipar Euskal Herriko ikasleen %70 inguruk ez du euskararekin harremanik; ikastoletako ikasleen kopurua emendatzen ari da, baina ikastoletako ikasle kopurua gutxiengo bat da. Eta abar, eta abar, eta abar…
Zein da irakurketa egokia Miren? Basoa erdi hutsa ala erdi betea? Nola ikusten duzu afera? Zertan gara?

Neurria: Sei puntuko handia
Airea: *Haizea dator ifarraldetik*

**M. Artetxe**
Nahiz eta batzuk bizi ohi garen euskaratik euskarara
eta saiatzen giren leuntzen besteei euskararen malda
datuak berez ez dira onak ta txarrak dira beharba
batzuk begiak zorrotz dituzte ta ahotsean ikara
baso bat dugu mahain gainean ta lurrean da dardara
gauza ez baita bete ala huts, basoa zilatua da!



Gu zabalera begira eta besteek txokoan tanto
batzuk irrifar zabal-zabala bestek begitan bi malko
batzuk diote egoera hau dela aldatu beharko.
Hola segituz egoera hobea izanen dela biharko
ta nik ez dakit ze politikan diren sekretu ta gako
baina ez ginuke lasaitu behar baso bat daukagulako.

Etorkizuna begiratuta etortzen zaigu ikara…
Nun egongo da? Noren ahotan? Zein karriketan euskara?
Euskaldun oro berriz euskaraz mintzatuko ote gara?
Gure mintzoa helduko bada umeen sehasketara
zenbat ta gehio pentsatu kezka gehitzen baitzaigu kezkara
berdin du baso, berdin lapiko, berdin katxi zein kikara
etorkizuna eraman behar dugu gure eskuetara
nire erabaki politikoa baikorra izatea da.




Bardo Eguna. Garralda. 2022-05-28. XDZ

# ZUMAIA

2022-04-22

**Bertsolariak**
Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Uxue Alberdi eta Oihana Iguaran
**Gai-emailea**
Jon Maia

Berrogeita hamar urte inguru bertso saioa egiten dela Santelmo jaietan. Hasierako urteetan oraingo areto berean izaten zen. Orduan Maria eta Jose, orain Zumaiena izena hartu duena. Urte askotan herriko zineman egin eta gero (1997tik 2019ra) duela hiru urte bueltatu zen areto honetara. Aforo gehiago izanik aurtengoan 500 lagun bildu dira.

**M. Lujanbio – U. Iturriaga**

Gaia: Unaik tatuaje bat egin nahi zuen pandemia garaian. Eta egin zion Maialenek. Orain urte eta erdi geroago bueltan dator kendu egin nahi duela esanez. Maialenek gomendatuta "Honetatik hobeak aterako gara" jartzen duen testua tatuatu zuen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*



**U. Iturriaga**
Ez dut ezer esango
aholkuengatik
guztiok pasa gara
ai pandemiatik!
Hobeak ez seguru
nik hori badakit
okerrago bada ere
atera hontatik. (bis)

**M. Lujanbio**
"Atera honetatik"
dio bi hitzetan
eta larritasuna
begi ta hatsetan
iaz egon zen bera
kejan orain bertan
esan nizun jartzeko
letra arabeetan. (bis)

**U. Iturriaga**
Lerdo aurpegi honekin
behar al dut gera?
besoak gorri-gorri
ta tinta sobera
bezeroak arrazoi
esaldia bera
ta zuk beti arrazoi
zure *arabera*. (bis)

**M. Lujanbio**
Arrazoiek bi alde
dituzte bizitzan
zuretzat ta neretzat
ezin du bat izan
ehun euro kobratu nun
urrea bailitzan
ni hartatik bastante
hobea atera nitzan. (bis)

**U. Iturriaga**
Ehun euro lehenagoko
milaka pezeta
bera hobea irten
ta neri parreka
adi 'zazu morena
egia da eta
tatuatzailea zara
baina ez poeta. (bis)

**M. Lujanbio**
Ez naizela poeta
baina fina lanez
ta gaizki eginaren
konponketa planez
"Hobe aterako gara"
gezurra aidanez
bestean eingo dizut
"Edo agian ez" . (bis)

**U. Iturriaga**
Ja nekatua nago
horrelako timoz
"I love you", "Maite zaitut"
ta esaldi intimoz
kentzen ez badidazu
esaldi hau mimoz
neuk azalduko dizut
hau zelan den txinoz. (bis)

**M. Lujanbio**
Tatuajeak bueltarik
ez dute ematen
pentsa ex-en izena
zenbatek daukaten
zuk segi beharko dezu
holaxe ein baten
hazka egiten eta
azkazalak jaten. (bis)

# BILBO

(Indautxu)
2022-05-08

**Bertsolariak**
Oihana Bartra, Xabat Galletebeitia, Ane Labaka Mayoz eta Alaia Martin
**Gai-emailea**
Galder Lizarralde

Indautxuko Jai Batzordeak igande eguerdiz antolatutako saioa da.

**X. Galletebeitia – A. Martin**

Gaia: Alaia taberna bat daukazu Xabaten etxe azpian. Azken bi urte hauetan terraza edukitzeko aukera eduki duzu pandemia zela eta. Udalak gutun bana bidali dizue esanez terrazako baimena bertan behera utziko duela. Alaia ez dago batere pozik udalaren erabakiarekin; Xabat ordea terrazarik ez den eguna noiz iritsiko zain dago.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

**A. Martin**
Nahiz ta jornada bukatzen nuen
nekatua, doblatua
nire terraza azken urtean
ez zegon isolatua
dena amaitu da, dena itxiko da
eta helduko da datua
desiatzen nago noiz helduko den
zazpigarren olatua.

**X. Galletebeitia**
Azkenerako iritsiko da
desiatzen nuen hura
pandemia ez da betiko eta
ez dugu betiko uda
zeuk aukeratu nola amaitu
behar zen zeren kontura
edo agindu ofiziala
edo baldekada ura.

**A. Martin**
Baldekada bat ur bota eta
frexkatuko zait larrua
asimilatzen lagunduko dit
udalaren amarrua
taberna hauena izan delako
erronbodun esparrua
pandemiarena izan omen da
ostalarion errua.

**X. Galletebeitia**
Ez dakit egin ahal diguzuen
mesede edota kalte
baina zabalik euki dituzu
haseratik hainbat ate
eta bazenu duintasuna
ala zenbait borondate
irabazien portzentaia bat
eman behar zenidake.

**A. Martin**
Zure portala, zure pixua
al da zure erresuma?
Nik atzetik dut legea eta
atzetik dut ogasuna
jaia ahaztu ta lehenetsi da
mundu mailan osasuna
nik diru pixka't irabazi dut
eta zuk alaitasuna.

**X. Galletebeitia**
Alaitasuna irabazi dut?
Ohean buelta ta buelta
estresa eta antsietatea
ia galdu dut oreka…
Zuk gehiagoren eske zabiltza
egin duzu gogoeta
biktimarena egiten zaude
taberna jendez beteta.

# SENPERE

2022-05-13

**Bertsolariak**
Garikoitz Agirre, Daia Harluxet, Irantzu Idoate, Ibai Lekuona, Kerman Diaz eta Haira Aizpurua
**Gai-emaileak**
Aimar Karrika eta Larraldeako bertso eskolako haurrak

*Haizea dator* egitasmoaren baitako saioa antolatu du Bertsularien Lagunak Elkarteak, Senpereko Amotz auzoko Larraldea etxe ederrean. Bertso eskolan ari diren haurrak, kozkortzen ari diren bertsolari gazteak eta bertsolariak uztartzen ohi dira *Haizea dator* proiektuko saioetan. 30 lagun elkartu dira saioa entzuteko; sartzea kitorik izan da.

**K. Diaz – H. Aizpurua**

Gaia: Zu, Haira, beti pozik egoten den pertsona horietako bat zara, edalontzia erdi beteta ikusten duzu beti, biziari irri egiten diozu. Zu, aldiz, Kerman, basoa erdi hutsik ikusteaz gain, negatiboa zara beti. Bikotea zarete, eta zuen alabak berriro ere platera hautsi du afarian.

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Gizona da zoroa*



**K. Diaz**
Biak elkartu ditu plater eta zoru
edozer hautsiko du honek orduz ordu
bazkariro berdina a ze bizimodu
martxa honetan etxe dena hautsiko du. (bis)

**H. Aizpurua**
Zurekin haserrearen usaina dario
poza izaten duzu beti arerio
baina ez zaite eman biziki serio
Ikeakoak dira, ez dira kario. (bis)

**K. Diaz**
Halere apurtu du egia ote da?
Zer ote hurrengoa gaur bada platera?
Ikea aipatu du kaguen la ospera!
Baionara joan behar da hori erostera. (bis)

**H. Aizpurua**
Armairuan badira platera hoiek zazpi
haraino joan beharra zuk duzu aitzaki.
Ni pozik, zu haserre ta berak badaki…
Gu ere ez al gira bi platera zati? (bis)

**K. Diaz**
Hori ez dut ulertu ongi beharbada
nire haserrea ta hor gure algara.
Gaizki hezi dugu ta gure errua da
hemen hautsia dena da gure alaba. (bis)

**H. Aizpurua**
Zuk gaizki ikusita, nik berritz hobeto
gure alaba duzu sartua tarteko.
Hautsia da baina ez da horixe kalteko
platera bat guttio baita garbitzeko. (bis)

**K. Diaz**
Platerak hor dabiltza zirti eta zarta
alferrentzako dugu gauza bat aparta
baina hobe dugu utzi hori pixkanaka
bihar ere berdina gertatuko da ta. (bis)

**H. Aizpurua**
Txarra begiratuta zuk duzu desira
baina hola ez zira joanen urrutira
marmarka eta kexu beti Kerman zira
haurra orain zugatik negarrez hasi da. (bis)

# BILBO

2022-05-14

**Bertsolariak**
Unai Iturriaga, Uxue Alberdi, Oihana Bartra eta Amets Arzallus
**Gai-emailea**
Irati Erkizia

Udaberri saioetako lehena izan da Karmelo Plazan eguzki bete-betean egin den gaurkoa. Santutxuko Bertso Eskolak udalaren laguntzaz antolatzen du bertso ziklo hau. Aurten lau saio izango dituzte, bi Santutxun eta beste biak Deustun.

**U. Iturriaga – A. Arzallus**

Gaia: Espioia izatea modan dago, eta zu espioi bat zara Unai. Ametsek kontratatu zaitu. Kontua da, udazkenean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa hasten dela, eta Ametsek irabazi egin nahi du. Unai kontratatu, eta dena jakin du: ze gai mota jarriko dituzten, zertan dabiltzan gainerako bertsolariak, nortzuk biltzen diren, ze ariketatan… Ibili zara ikerketa lanetan, eta gaur da Ametsi ikertutakoa azaltzeko eguna.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

**U. Iturriaga**
Unai *Pegasus*[3] detektibe mundiala
jakizu Amets nire txostena
erdi eginda dudala
Maialen dabil fuerte
Sustrai argal ta tente
pentsatua zen bezala
baina momentuz notizia da
Jon Maia ez dijoala. (bis)

**A. Arzallus**
Maialen bizi osoan zehar
hain da zizelkari fina!
Sustrairen planta azken hogei bat
urteotan da berdina
ta ez doala Jon Maia
Twitterren dabil gaia
hau detektibe sorgina!
Bi miloi euro ta jakiteko
mundu guziak dakina. (bis)

**U. Iturriaga**
Xehetasunak ematen ditut
baina bigarren partean
entzuna daukat Bartra dauela
egundoko aldartean
fuerte ere Alaia
Iguaranen dohaia
entrenatzen da parkean
ta Mendiluze sartuta dago
inbernadero batean. (bis)

**A. Arzallus**
Tira, informe dexente batzuk
lortu ditut azkenean
Bartra, Iguaran eta Alaia
ta Aitor aldamenean
inbernaderotara
joan da Almeriara
bere budista senean
*Pegasus* sartu behar zenuke
bere burmuin barrenean. (bis)

**U. Iturriaga**
Ez dut pentsatzen Mendiluzekin
luzatuko denik gerla
zure mailara ez da iristen
bertsolarien tropela
zalantza dago ezen
pentsatu bazoazen
kontua dago horrela
entzunda baitut Enrique Mayak
janzten duela txapela. (bis)

**A. Arzallus**
Rajoyri haur batek eman zizkion
lau belarrondoko bero
nik ere berdin egin nezake
hara iritsi ezkero
baina ze detektibe?
Hobe nuke bai bide
James Bond baneuka bezero
baina hura zero, zero, zazpi zen
ta zu berriz zazpi zero. (bis)



3 Pegasus: espiotza programa informatikoa

# OIARTZUN

2022-05-14

**Bertsolariak**
Andoni Egaña eta Amets Arzallus
**Gai-emailea**
Karlos Aizpurua

Oiartzungo Arragua auzoko Aldeguna elkarteak apailatu du bertso-afaria laugarren aldiz. Afari goxoa baina merkea (22 euro) eta puntako bi bertsolari kantuan aritzeko prest mukuru betea den jantokian. Lehen partean gai librean aritu dira; bigarrenean gai-emaileak proposatutako gai eta ariketen arabera.

**A. Egaña - A. Arzallus**

Gaia: Ez dakit entzun duzuen baina Ametsek Ibhaima Balderekin *Miñan* izeneko liburu bat idatzi du. Eta sekulako arrakasta eduki du liburuak. Aita Santuak ere leitu du eta asko gustatu omen zaio. Amets etxean dela, norbaitek atea jo du. Ireki du Ametsek atea, nor izango eta… Aita Santua bera!

Neurria: Hamarreko txikia
Airea: *Antton eta Maria I*



**A. Arzallus**
Vatikanoan bada
makina bat ixko
zu ez zera Olariaga
ez eta Asisko
norbaitek jarri zintun
zeruko ministro
poz bat da ezagutzea
zu hemen Frantzisko
baina galdera bat det
zu hemen ze kristo? (bis)

**A. Egaña**
Sarara etorri naiz
ez nere kaltera
hemen azaltze hutsa
mirari ote da?
Liburu bat letu nun
ederra zen bera
hargatik etorri naiz
zu ezagutzera
eta ahal baldin bada
kristau egitera. (bis)

**A. Arzallus**
Bizitzak egoerak
ez baitauzka urri
baditu bai hainbeste
aldrebes, bihurri
liburu bat ein gendun
inurri-inurri
zuk hori leitu duzu
jakintza iturri
ba nik oraindik ez det
Biblia irakurri. (bis)

**A. Egaña**
Hiru mila orrialde
soil-soilik guztira
Bibliak beti izan du
maila ta diztira
aizu pentsatzen nuen
ta erabaki di-da
Biblia bat dakarkit
zuretzako tira
eta detailetxo bat
hogei euro dira. (bis)

**A. Arzallus**
Ustez Frantziskok kax-kax
atea jo didala
*testigo de Jehova*
da bera aibala!
*Miñan* liburua omen
bihurtu birala
ehun orri justu dira
marrazkiz zabala…
Banekien fraileak
alperrak zirala! (bis)

**A. Egaña**
Ni alperra ez ezik
zaharra naiz nabarmen
ta bixita batean
han hasian geunden
hegazkinera igo
eta ez nengon lerden
beste baten ahotsa
entzuten nun hemen
hark irakurtzen zidan
nik entzun ein nuen. (bis)

**A. Arzallus**
Hona ekarri zaitu
sensibilitateak
eta lagundu nahiak
geure migranteak
baina egin aurretik
guk biok pakeak
zuk askatzen dituzu
zeruko kateak
ba zabal'izkiozu
lurreko ateak. (bis)

**A. Egaña**
Nere eskutara heldu
Miñanen trantzea
erderaz egin nuen
haren balantzea
*Hermanito* titulo
aurre ta atzea
aberastu nahi nuke
nere baratzea
eta noizbaiten lortu
euskeraz letzea. (bis)



Bizkaiko Taldekako Txapelketako finala. Larrabetzu. 2022-05-28. XDZ



# MARKINA-XEMEIN

2022-05-22

**Bertsolariak**

Maider Altuna, Iruri Altzerreka, Miren Amuriza, Janire Arrizabalaga, Josune Aramendi, Izaro Bilbao, June Diaz, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Aissa Intxausti, Enare Muniategi eta Jone Uria

**Gai-emaileak**

Maite Berriozabal, Ainhoa Urien eta Maddi Zabalo

Bizkaiko bertso munduko emakumeen lehenengo topaketa egin dute Markina-Xemeinen. Eguerdian elkartu eta egun pasa egin dute "Elkar ezagutu, saretu eta gozatzeko" helburuz. Bertso munduko eremu eta belaunaldi ezberdinetako 60 emakume elkartu dira. Puntako bertsolariak, gazteak, gai-jartzaileak, epaileak, bertsozaleak, antolatzaileak... Bizkaiko Bertsozale Elkarteak antolatu du ekimena eta eguerdiko poteoak, bazkariak eta ondorengo bertso saioak osatu dute egitaraua. Plazabarripean egin da jaialdia hamabi bertsolari eta hiru gai-jartzailerekin.

**On. Enbeita - E. Muniategi – I. Altzerreka - M. Amuriza – J. Arrizabalaga - A. Intxausti**

Gaia: Nola aldatu zuen esperientzia bertsolaritzan hasi zinetenetik hona? Elkartzeak gauza onak eta txarrak ditu. Zer da zuentzat elkartzea? Zer da elkar topatzea?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Esplikatzera noa kontuak*



**On. Enbeita**
Ni hasi nintzen sasoia behintzat
ikusten dut hain urruna!
Orain gazteak ikusi eta
bistan da etorkizuna
alkartzeagaz konprobau dogu
nor dan etsai, nor laguna
inoiz zentzurik eduki badau
oraintxe dauka zentzuna.

**E. Muniategi**
Hasiera baten bertsoa ei zan
ikastolako jolasa
baina bakarrik jolastearena
hain ahul ta estu arnasa
ta gaur alkartu gara berton ta
aurrerantza doa antza
ai pentsatu dot hamar urte bai
ez dira alperrik pasa!

**I. Altzerreka**
Elkartzea da denok batera
konpartitzea bidea
elkartzea da elkar mirestu
zurea eta nirea
elkartzea da laguna ere
izatea bertsokidea
gaurkoa dugu elkartzearen
aparteko adibidea.

**J. Arrizabalaga**
Hasieran nintzen Lilibertsoko
neska bakar ta hortxe zut!
Ta horregatik aurkitu nahian
ahizpa edo kide batzuk
topatze hitza definizio
eta guzti horrexen truk
bilatzen nuen guzti horixe
gaurko egunez aurkitu dut.

**M. Amuriza**
Hamalau urte neukazanean
nintzen galtzerdi soltea
erre nahi bai baina eztulka hasi
ta kiroletan torpea
baina euki neban bertso eskolara
ailegatzeko zortea
ta ze ederra oin pare sueltoen
ekipoan egotea.

**A. Intxausti**
Bertso eskolan zuen alboan
pasa dut nahiko denbora
lehen inertziaz ta kontzienteki
elkartu ginen gerora
guk erabaki beharko dugu
elkartu noren albora
baina argi daukat elkartu gabe
ez goazela inora.

**On. Enbeita – A. Intxausti – E. Muniategi**

Gaia: Gaur belaunaldikotasuna agerian da hemen. Zuek hiruok urte desberdinetan jaiotakoak zarete, belaunaldi desberdinketakoak. Zuen belaunaldian kokatuta, zer eskertzen diezue aurrekoei? Zer eskatu hurrengoari? Eta zuek belaunaldi moduan zer duzue eskaintzeko?

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

**On. Enbeita**
Ez geneukan norantza
bota begirada
Kristina agertu zan
eta danok hara
Iratxegaz plazetan
be ibili gara
ezerezean sortzen
horrenbeste traba!
Existitzea ere
eskertzekoa da.

**E. Muniategi**
Geuk eskertzeko bada
egunen harira
ta eskualdean be
batzuk ai badira!
Bi herri harantza ein
ta Muxiken tira
ta gaurko kili-kili
ta tripan dizdira!
Orain zugaz kantuan
lehen zuri begira.

**A. Intxausti**
Izan zarete ia
gure bertso ama
ai errez duzuenak
izan panorama!
Eta guk jaso dugu
hor zuek emana
ta nola ez eskertu
egindako lana?
Batez ere bidea
xamur utzi izana.

**On. Enbeita**
Gaur pixka´t sentitzen naz
hemen danen ama
zuei esker aldatu
ein da panorama
lotsa barik egiten
dozuenez lana
nik eskatu? Ezebez
hori falta zana!
Zuegaz erre nahi dot
erre behar dana.

**E. Muniategi**
Hainbeste ez sufritzen
be ikasten gabiz
ta gaur entzuten ere
dauzkau batzuk badiz
ta gauza bat eskatzen
aitzakian adiz
eskatuko deutsuet
miresmenan begiz:
kantura ez etorri
kakalarri aurpegiz.

**A. Intxausti**
Gogotsu ikusten dut
gure ondorena
zuentzat soilik daukat
nire miresmena
gure belaunaldia
zen nahiko zuzena
ta zuei ezin eskau
horrenbeste lema
egiteko tortolan
jartzen zaizuena.

**On. Enbeita**
Nire aportazino
urrien peskisan
askorik ezin topau
nik neure gerizan
badakizue santak
bakarrik elizan
